

# Kontzeju

www.oiñati.eus



berria oiñati



@berriaoiñati



oiñati.eus



oiñati.eus

DEGIK

Oñatiko Udal aldizkaria | 2018ko otsaila | 280. zenbakia



Goyarekin ala gabe

## HANDIA

Goya saria eskuratzeko aukera dauka larunbatean Aitor Arregi zinegile oñatiarrak



## AITOR ARREGI

HANDIA

GOYA SARIA ESKURATU  
DEZAKE LARUNBATEAN  
ZINEGILE OÑATIARRAK

Argazkia: David Herranz

# “Euskal zinemagintzak bidea egiten jarraitzea, horixe da Handiaren ekarpen nagusia”

Larunbatean (otsailak 3) telebistari adi-adi egongo gara. Espainiako Zinema Akademiak ematen dituen Goya sarien 39. gala ospatuko da, eta bertan izango da Aitor Arregi zinegile oñatiarra, *Handia* filmeko lantalde ia osoarekin batera, izendapen geien - hamahiru- dituen pelikula baita Moriarti ekoiztetxearen azken lana. Goya saria eskuratzeko laugarren aukera izango da Arregirentzat. Aurretik *Glup* animazio filmarekin (2004), *Lucio* dokumentalarekin (2008) eta *Loreak* film luzearekin (2015) egon zen izendatuta. Orain artekoetan esku hutsik itzuli behar izan du, baina espero dezagun aurten jasotzea hain preziatua den saria.



Bi egun besterik ez Goya sarien galarako. Nola zaude?

Oso animatuta eta gogotsu. Hamahiru kategoriatan izendatuta dago *Handia* eta, beraz, ia lantalde osoa egongo gara bertan, eta horrek poz berezia ematen du, sentitzen duzulako, nolabait, denek jaso dutela jada beren errekonozimendua.

Sariei dagokionez, egia da aukerak ditugula, izendapen gehien dugulako, baina ez dut uste horregatik faboritoak garenik, inondik inora. Lehian dau den beste pelikulak ikusi ditut, eta balio handiko filmak direla uste dut. Ikusi egin behar.

Dena den, gu ilusio handiarekin goaz, ondo pasatzeko eta borroka egiteko gogoz. Sari bat da jada, hamahiru izendapen edukitzea.

Oihartzun mediatiko handia dute Goya sariak. Nola darazazu azken aste hauetako zurrumbiloa?

Udazken eta negu hasiera zoroa izaten ari da. Donostiako zinemaldian aurkeztu genuenetik izan da frenetiko. Sariak, estreinaldia, promozioa, elkarriketak, zinema jaialdietara joatea... Azken bi asteak ere bereziki zoroak izan dira: *Forqué* sariak, *Feroz* sariak, Zine-Idazleen Elkartearenak... Madrileran joan-etorri etengabe bizi gara, eta kalean ere jende asko hurbiltzen zaigu, normala den moduan. Egia esan, gauza polit bat bezala hartzen dut. Momentuaz gozatzaren saiatzen naiz, badakidalako laster amaituko dela zarata hau guztiau.

Izan ere, marka jarri du *Handiak 13* izendapenekin.

Inportanteena da, azken batean, euskal zinemagintzak urratsak ematen jarraitzea. *Loreak*-ek mugarri batzuk jarri zituen (Donostiako Zinemaldian sail ofizialen lehiatu zen euskaraz eginiko lehen filma, pelikula onenaren Goya sarirako izendatua, eta atzerriko film onenaren *Oscar* sarirako hautatua), eta beste euskal film batzuek ere ibilbide arrakastatsua egin dute: *Aupa Etxebeste*, *Urteberri on*, *Amona!*, *Amama*...

Beraz, gure helburua da orain saiatzea hor mantentzen eta, ahal bada, urrats bat haratago joaten. Eta, zorionez, *Handia*-rekin lortu dugu. Erakutsi du euskal zinemagintzak, bere txikitasunetik, gai dela drama historiko bat egiteko beldur barik eta lotsa barik. Eta ez dugu ahaztu behar, beste euskal

## 13 HAUTAGAITZA

### Goya sarietarako

- **Pelikula onena** *Handia*
- **Zuzendari onena** *Aitor Arregi eta Jon Garaño*
- **Jatorrizko gidoi onena** *Aitor Arregi, Andoni de Carlos, Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga*
- **Jatorrizko musika onena** *Pascal Gaigne*
- **Aktore berri onena** *Eneko Sagardoi*
- **Produkzio zuzendaritza onena** *Ander Sistiaga*
- **Argazki zuzendaritza onena** *Javier Agirre*
- **Muntaketa onena** *Laurent Dufreche eta Raul Lopez*
- **Zuzendaritza artistiko onena** *Mikel Serrano*
- **Jantzi diseinu onena** *Saioa Lara*
- **Makilaje onena** *Ainhua Eskisabel, Olga Cruz eta Gorka Agirre*
- **Soinu onena** *Iñaki Diez eta Xanti Salvador*
- **Efektu berezi onena** *Jon Serrano eta David Heras*



Donostiako zinemaldian epaimahaiaren sari berezia jaso zuen *Handia* filmak

produkzio bat (*Nur eta Heren-sugearen tenplua*) animazioko film onenaren sarirako izendatuta dagoela, eta laster, genero fantastikoko pelikula bat (*Errementari*) estreinatuko dela. Horrek erakusten du kalitatea eta barietatea dagoela euskal zinemagintzan.

Nork eta nola egiten ditu Goya sarietako izendapenak?

1.700 bat akademiko ditu Espainiako Zine Akademiak. Zinemagintzako arlo ezberdinetan (aktoreak, zuzendariak, makilatzailak...) esperientzia eta meritu jakin batzuk dituzten profesionalak dira, eta horiek bozkatzen dute.

Kontua da, akademiko gehientsuenak Madril bizi direla eta, beraz, *extrarradioko*-ak garenontzat ez da erraza arreta erakartzea. Are gutxiago euskarazko film bat bada. Horregatik, *Handia* Donostiako zinemaldian aurkeztu zenean, gu Madrileran joan ginen, eta zine akademiak daukan aretoan aurkeztu genuen filma.

Zorionez, badirudi azkenaldian akademian ateak zabaldu dizkiotela zine tipologia berri bati. Horren erakusle da *Handiak 13* izendapen jaso izana, eta *Estiu 93* (katalanez egindako filma) edo *Verónica* (beldurrezko filma) pelikula onenaren sarirako izendatuen artean egotea.

Laugarren aldia da Goya sarietarako izendatuta zaudena. *Glup*, *Lucio* eta *Loreakekin* ez zen zorterik izan. Aurten bai, ala?



**Etxe-Aundi**  
Hostela Jaitzaia \*\*  
Tel. 943 78 19 56  
www.etxeaundi.com





Ez dakit. Ohituta nago jada esku-hutsik bueltatzen, beraz... Sentipen kontrajarriak ditut; baikor nago, baina, era berean, badakit beste lehiakideak ere pelikula sendoak eta indartsuak direla.

**Pelikula eta zuzendari onenaren sariak izango dira betegariena, ala?**

Pelikula onenarena da betegariena, inportanteena delako, eta, gainera, lantalde osoa dagoelako ordezkatuta sari horretan. Zuzendari onenaren sariari buruz ere beste horrenbeste esan liteke, esan nahi baitu departamentu guztiak era harmoniatsuan eraman direla. Baina gainerako sariak ere ilusio handia egiten didate.

**Zuzendari edo jatorrizko gidoi onenaren saria irabaziz gero igoko zara golardoa jasotzera. Mezu berezirik prestatu al duzu?**

Hori asko pentsatzea da, baina, edozein kasutan, ez nintzateke polemiketan sartuko. Tuntu handiz ibili behar da halakotan. Ez zaude zure burua errepresentatzen bakarrik; pelikularen atzean dagoen lan talde oso bat ordezkatzeko duzu. Han esandakoak kalte egin diezaioke filmean parte hartzen duen jendearen lanari, eta ez dut halakorik nahi.

**Paradoxikoa bada ere, izendapen gehien dituen filma izanik, 'galtzaile' irteteko arriskua ere hor dago.**

Bai, hala da; '*La gran perdedora*'



Arregi, Isabel Ila erreginaren rola bete duen Naima Barrosori aginduak ematen (Arg.: David Herranz)

bezala geratzeko arriskua hor dago, eta onartzen duzu gerta daitekeela. Barietate handia dago izendatuen artean, eta gerta daiteke sariak oso banatuta egotea, edo esku gutxiren artean geratzea. Irrikaz nago jakiteko nondik nora doan.

Baina, edozein modutan, hainbesteko inpaktua duten Goya sarietan egotea oso inportantea da guretzat, ate asko zabaltzen dizkizulako proiektu berrietarako finantzabideak lortzeko orduan. Ildo horretan, esan dezaket *Handia* egin dela *Loreaki* esker.

**Ikusle kopuruari dagokionez ere marka berria ezarri du *Handiak*.**

Bai. Datu ofizialen arabera, 90.000 lagunek ikusi dute pelikula, baina azken datuen zain, uste dut ez garela 100.000tik

**Ahalegin berezia egin dugu filma euskaraz soilik emateko azpi-idatziekin. Horixe zen koherenteena gure ustez.**



oso urruti ibiliko. Orain arteko euskarazko pelikularik ikusiena *Aupa Etxebeste zen*, 72.000rekin.

Euskal Herrian, bereziki, oso erantzun ona izan du. Hiri eta herri askotako datuak oso onak izan dira, eta urteetan zinera joan gabeko jende asko erakarri dugu aretoetara. Guretzat oso kopuru onak dira, kontuan hartuta Euskal Herrian bertan jende asko dagoela pelikula ikustera joan ez dena, euskaraz delako.

**Euskaraz bakarrik eman duzue?**

Euskal Herrian bai, eta uste dut hori ere aipagarria dela. Euskal Herriko zine areto askok eskatu digute gaztelerazko zinta, baina gure apustua izan da euskaraz jartzea, azpi-idatziekin. Ertz asko dituen gaia da, gure herriko errealitate soziolinguis-

**ZURICH**

M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Fax: 943 78 30 09 • Mugikorts: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK  
PERSOIAK, LEBURAK, LUR PINTZATEAK, ARRIAK, PINTURAK, LAMAK...

DIENEMAZTARRE ETA MONTATZHELEK  
HERRALDITZA, HERRAMAK eta ARRIKIZ EGINDAKO  
HARRAK, TUBOAK, ZINGOAK, HERRI - OPIKINAK  
695 78 91 04 - 943 04 47 77

tikoa kontuan hartuz, baina euskarazko zinemagintza bultzatzeko eta pelikularen espiritua-rekin lehialak izateko, euskaraz behar zuela ikusten genuen, eta ahalegin hori egin dugu.

**Espainia mailan nolakoa izan da erantzuna?**

Estatu mailan ere hobeto funtzionatu du euskarazko zintak, gaztelerazkoak baino. *Handia* ikustera joan direnek jatorrizko bertsoian ikusi nahi izan dute.

**Jende askok ikusi badu ere, takillan bildutakoarekin nekez egin dakioke aurre 3,5 milioiko aurrekontuari.**

Ez, noski. Finantziazio pribatua eta publikoa beharrezkoa da; bai hemen eta baita Estatu Batuetan ere. Hango zinea diru pribatuekin egiten dela uste dutenak oker dabilta. Hango industria potenteetakoa da eta gobernuaren aldetik dituen laguntzak eta babes neurriak izugarriak dira. Frantzia bertan, 600 milioi euroko subentzioak ematen zaizkio sektoreari, eta Espainian 30.

Nik benetan uste dut, zinea eta, oro har, kultura dela herri baten marka sortu eta zabalteko modu interesgarrienetako bat.



Aitor Arregi eta Eneko Sagardoi (aktore gazte onenaren Goya sarirako izendatua) *Feroz* sariaren ekitaldian.

**Orain arteko euskarazko pelikularik ikusiena da Handia, ia 100.000 ikuslerekin**



**Dagoeneko pelikula berria prestatzen ari zarete, ezta?**

Bai, gerra zibilaren ondorengo urteetan, Andaluzian frankistek fusilatuko zituzten beldur etxean hainbat urtez (batzuk 30 urteraino) gordeta egon ziren 'sator' en inguruko historia kontatu nahi dugu.

Jose Mari, Jon eta hirurok zuzenduko dugu filma, Andaluziako ekoiztetxe batekin elkarlanean. Maiatzean grabatu nahi dugu. ■

## Zinema zale amorratua

Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatu ostean, Sarobe Arte Eszenikoen Gunean egin zituen zine ikasketak Aitor Arregik (Oñati, 1977). Hantxe ezagutu zituen, besteak beste, Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga, eta elkarrekin sortu zuten 2001-ean Moriarti ekoiztetxea.

Ez da damutzen enpresa ikasketak egin izanaz, baina bere benetako pasioa zinea dela aitortzen du; "odolean daramat".

*Sahara Marathon* dokumentala, *Glup* eta *Cristobal Molon* animazio filmak eta *Zarautzen erosi zuen* laburra zuzendu ditu, besteak beste. Baina lanik esanguratsuenak *Lucio* dokumentala eta azken bi luzemetrai arrakastatsuek (*Loreak* eta *Handia*) izan dira, taldean eginak, Jose Mari eta Jon lankideekin batera.

Zinea egiteaz gain, irakasle ere aritzen da Aitor Mondragon Unibertsitateko ikus-entzunezkoen fakultatean

**Bezeroen beharrei erantzuteko prest!**



**GUALBI**  
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6  
Tif.: 943 78 16 48

email: maitane@gualbiasesores.com

[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)



ANDER MADINAGOITIA / Ulma Packaging-en lantegi berriko zuzendaria

## “Goribarko lantegi berria handitzen hasiko gara laster. Etorkizuneko aurreikuspenak oso baikorrak dira”

Urtarrilaren 17an inauguratu zuten ULMA Packaging-ek Goribarren eraiki duen lantegi berria. Azken urteotan berebiziko hazkundea —laukoiztu egin ditu salmentak— izan duen termoizigilatua-ren negozio unitatea eraman dute bertara. Lantegi berriko zuzendari Ander Madingoitiak eman digu xehetasun gehiago.

**Zer da termoizigilatua? Zein da ontziraketa teknologia honen berezitasuna?**

Ontziratze arloan soluzioak ematen dituen enpresa da Ulma Packaging, eta bere baitan dituen negozio unitateetako bat da termoizigilatua.

Teknologia hau galkorrak diren jakiak enbasatzeko erabiltzen da, eta bere berezitasun nagusia da, ontzi edo enbaseen barruko atmosfera aldatzeko aukera ematen duela, barruko produktuen bizitza luzatzen

delarik.

Termoizigilatuko makinak oso malguak edo flexibleak dira, eta molde edo tamaina ezberdineko ontziekin lana egiteko aukera ematen dute. Gainera, ontziratze teknologia ezberdinak aplikatzeko aukera eskaintzen dute (atmosfera aldatuta, aldatu gabe, hutsean...) eta hori eskertu egiten dute supermerkatu handiek, produktu eta enbase berritzaileak merkatu-ratzen ari direlako etengabe.

“

Lau urtetan  
laukoiztu egin  
ditugu  
salmentak, eta  
30 langile  
izatetik 100era  
pasa gara

Negozio linea hau ez da berria Ulma Packaginen. Zer dela eta azkenaldiko hazkundea?

90. hamarkadan jarri genuen martxan termoizigilatuen negozioa. Lehenengo urteetako salmentak oso apalak izan ziren, baina merkatuan geneuzkan beste teknologia batzuei esker, poliki poliki izen bat hartzen joan ginen. Edozein modutan, gure salmentak estatu mailara mugatzen ziren, ia osorik.

Horregatik, 2008-2009an termoizigilatua arloan mundu mailako liderra zen enpresarekin elkarlanean hasi ginen —beraiek produzitu eta guk saldu—, baina zenbait urteren ondoren berri ere fabrikatzen hasia erabaki genuen.

2013an geure produktuak garatzeko apustu sendoa egitea erabaki genuen, eta oso denbora gutxian makina sorta zabala eta oso konpetitiboa garatzea lortu dugu, bai prezioan eta bai kalitatean. Horren ondorio da azken lau urteetan termoizigilatuko salmentak lauokiztu izana, eta 30 langile izatetik 100era pasatzea.

Lantalde gaztea eta kualifikatua gara, ilusio handia daukana, eta denon lanari esker lortu ditugu emaitza horiek. Gainera, Ulma Packagingek salmenta eta zerbitzu sare zabala dauka mundu mailan, eta horrek ere bidea errazten du munduko txoko askotara iritsi ahal izateko.

Bestalde, merkatua berpiztu edo berraktibatu egin da, eta gure bezeroek baloratu egiten dute ULMAk erakusten duen gertutasuna.

**Zein dira zuen bezeroak?**

Okela, arrain, hegazti, barazki eta aurrez prestatutako janariaren sektoreetan ari gara saltzen gehien bat. Hamarretik gora makina mota egiten ditugu, bezeroen premietara egokien moldatzen diren soluzioak eskainiz beti ere.



## Inauguratu orduko txiki

Bost milioi euroko inbertsioa egin du Ulma Packaging-ek Goribarko lantegi berria erakitzeko. Guztira 5.000m<sup>2</sup>-ko azalera du; horietatik 4.000m<sup>2</sup> produkzioarako erabiliko dira, eta gainerakoa bulegoetarako. Urtean 400 makina ekoizteko ahalmena dauka lantegiak, baina, zorionez, aurreikuspenak oso onak dira, eta laster lantegia handitzen hasiko dira, aldameneko orubean.

### » Termozigilatua

Molde eta tamaina ezberdineko ontziekin lan egiteko aukera ematen dute termozigilatze makinek. Gainera, eta hori da bere berezitasun nagusia, ontzi barruko atmosfera aldatzeko aukera ematen du, eta horrekin produktuen bizitza luzatzen da



Termozigilatzeko 11 makina ezberdin egiten ditu Packagingek, bezeroen beharretara egokitzen diren soluzioak eskainiz

Azken batean, irudi-marka sendo bat sortzen ari gara, eta erreferentziazkoak diren bezero handien artean gero eta hobeto kokatuta gaude. Bezero handi horiek gero produktuz hornitzen dituzte supermerkatu handi asko (Eroski, Mercadona, Carrefour, Aldi, Lidl, DIA...)

‘Lean’erako produkzio lerroak inplementatu dituzue lantegi berrian. Zertan datza eta zein abantaila ditu antolaketa modu horrek?

*Lean Manufacturing* izeneko teknologia Toyotaren ekoizpen ereduan oinarrituta dago, eta produkzio sistema optima-

tzea bilatzen du, balio erantsirik ematen ez duten aktibitateak murriztuz. Produkzio kostuak gutxitu, entrega epeak azkartu, kalitatea hobetu eta eraginkortasun produktibo handia lortzeko aukera ematen du.

Hurrengo urteetarako aurreikuspenak oso onak dira. Ilusio handiarekin ari gara lanean, hazten jarraitu eta sektoreko liderren artean sendotzeko asmoz.

Horretarako, lantegi berri hau handitzeari ekingo diogu. Horrek aukera emango digu hazteko, bai fakturazioan eta baita lantaldean ere. Batez ere ingeniariak edo lanbide heziketako formazioa duten per-

tsanak behar ditugu.

Dena den, hankak lurrean eduki behar ditugu, ez baita erraza izango. Lehia handia dago merkatuan, eta ez gaude bakarrik. Baina azken urteetako indar eta ilusio berarekin jarraitzen badugu, aukera handiak ditugu hazten jarraitzeko eta sektoreko liderren artean kontsolidatzeko.

**Termozigilatua hitz egiten ari gara, baina Ulma Packaging hori baino gehiago da, ezta?**

Bai, termozigilatua gain, enbasatzeko beste teknika batzuk (*flow pack, termoformatura, bertikala, film hedagarria...*) erabiltzen dituzten makinak diseinatu eta ekoizten ditu Ulma Packagingek, ontziratzeko prozesuak automatizatzeko behar dituzten sistemak eskainiz enpresa txiki nahiz multinazionaleri.

Gaur egun 1.400 bat langile ditu guztira, horietatik erdia baino gehiago Oñati eta inguruan. Hogei herrialde ezberdinetan dago kokatuta, eta ia mundu osora iristen da bere banatzaile sarearen bidez. Iazko aurrekontuak itxi gabe ditugu oraindik, baina 2016an 218 milioi euroko salmentak izan genituen, horietatik ia %80 nazioartean. ■

“**Lantalde gaztea eta kualifikatua gara, ilusio handia daukana, eta guztion lanari esker lortu ditugu emaitza horiek**”



# KANTAURIAR MENDIKATEA ETA HEGAZTI SARRASKIJALEAK

**OÑATIKO XXII. INGURUMEN JARDUNALDIETAN AZTERGAI**

» Sáenz de Buruaga biologoa, eta hegazti harrapakarietan maisua den Antoni Margalida daude hizlarien artean » ‘Cantábrico-Kantaurialdea’ dokumental ikusgarriaz goatzeko aukera izango dugu, euskaraz

**B**i gai nagusiren inguruan izango dira aurten Natur Eskolak antolatutako XXII. Ingurumen Jardunaldiak: Kantauriar mendikatea, eta hegazti sarraskijaleak.

‘Galizian hasi eta Bizkaia-raino luzatzen den Kantabriar mendikatea oso aberatsa eta interesgarria da. Pirinioak baino basatiagoa dela esan daiteke, hemen desagertuta dauden hainbat espezie (hartza, otsoa...) bizi direlako oraindik Kantauriar mendilerroan. Hala ere, eta Euskal Herritik oso gertu dagoen arren, euskaldun askorentzat oso ezezaguna da mendikate hori, eta horregatik eman nahi diogu garrantzia, jendeari ezagutzera emateko

bertan dagoen aberastasuna, bai biologikoa, bat paisajistikoa eta baita giza aldetikoa ere” azaldu digu Imanol Bianek, natur eskolako kideak.

Eta kantauriar mendikatea ezagutzeko ‘*Kantaurialdea-Cantábrico*’ dokumental ikusgarriaz (iazko Goya sarietan izendatua) goatzeko aukera izango dugu, euskaraz, zineklub tartean. Gainera, DBHko ikasle guztientzako pase bereziak antolatuko dituzte.

Dokumentalaz gain, Kantauriar mendikateari buruzko bi hitzaldi ere egongo dira. Alde batetik, Euxebio Novoa oñatiarrrak bidaiari eta mendizale baten ikuspuntutik erakutsiko digu mendilerroa: jendea,

herriak, paisaiak..

Bestalde, Mario Sáenz de Buruaga biologoak azalduko digu dena ez dela larrosa kolorekoa, eta Kantauriar mendikateak dituen mehatxu eta arazoez hitz egingo du: populazio galera, azpiegitura handiak, eski estazioak, argindar sareak...

“Mendikatea osotasunean erakustea da gure asmoa” azaldu digu Biainek; “dokumentalean alde polita



**Hartz arre, otso, basakatu, zaldi basati, basoilar eta beste zenbait espezie basatiren bizilekua da Kantauriar mendikatea.**



ikusiko dugu (bioaniztasuna), Sáenz de Buruagak alde ilunak erakutsiko dizkigu, eta Euxebio alde ludikoa”.

### HEGAZTI SARRASKIJALEAK

Jardunaldien bigarren ardatza hegazti sarraskijaleei buruzkoa izango da. Oñatin oso arrunta da putreak, sai zuriak, miru gorriak eta, tarteka, ugatzak ere ikusteak, baina Europako beste hainbat lekutan desgertzeaz daude. Horregatik jarri da martxan ECOGYF proiektua, Pirinioen alde bietako herrien artean, hegazti hauen inguruko biodibertsitatea babestu eta zabaltzeko asmoz.

Ildo horretan, Oñatin bertan mota honetako hegaztien markaketa egin zen iazko udan, espezie hauen mugimenduak eta ohiturak hobeto ezagutzeko asmoz, eta, hain zuzen ere, proiektu horretan egiten ari diren lanaren berri emango da hitzaldietako batean.

Bestalde, Gipuzkoan zentratuz, hegazti sarraskijaleen (putrea, sai zuria, miru gorria, ugatza, putre beltza...) gaur egungo egoera zein den azalduko da, eta, azkenik, hegazti mota hauetan benetako aditua den Antoni Margalida kataluniarrek hitz egingo du, giza-kien eta sarraskijaleen arteko harremanaz, eta nola eboluzionatu duen historian zehar.

Gainera, hegazti sarraskijaleen argazki ikusgarriak eta tamaina naturalaeko erreplikez osatutako erakusketa egongo da kultur etxean. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

### ERAKUSKETA (OTSAILAK 15 - MARTXOAK 11)

- **‘Hegazti sarraskijaleak; garbiketa-brigada ixila’**  
Kultur etxean, egunero, 18:00-20:00  
Inaugurazio egunean (otsailak 15) bisita gidatua egingo da.



Argk.: Xabier Mendarte

### HITZALDIAK (KULTUR ETXEAN / 19:00)

- OTSAILAK 21: **‘Kantabriar mendikatea pedalkadaka udazkenean’**  
Hizlaria: Euxebio Novoa
- OTSAILAK 23: **‘La cordillera Cantábrica: luces y sombras’**  
Hizlaria: Mario Sáenz de Buruaga, biologoa
- OTSAILAK 27: **‘Proyecto ECOGYF. Situación del bultre leonado y trabajos de marcaje en Oñati’**  
Hizlariak: Txema Fernández (HAZiiko teknikaria) eta Carmelo Fernández León.
- OTSAILAK 28: **‘Sarraskijaleen egoera Gipuzkoan’**  
Hizlaria: Mikel Olano, Foru Aldundiko basozaina
- MARTXOAK 2: **‘Humanos y carroñeros: beneficios de una relación ancestral’**  
Hizlaria: Antoni Margalida, Biologoa. CSICko ikerlaria

### ZINE KLUBA

- OTSAILAK 22: **‘Kantaurialdea. Lurralde basati bat, uste baino hurbilago’** (Euskaraz). Zuzendaria: Joaquín Gutiérrez Acha.  
Kantauriar mendikateko bizitzari buruzko produkzioz onena.



### ZUHAITZ FERIXIA

- MARTXOAK 3: Mintegi ezberdinetako frutarbolak, hostozabalak, koniferak, landare ornamentalak...  
Foruen enparantzan, goizeko 9etatik eguedira arte.

### ZUHAITZ EGUNA

- MARTXOAK 4: **Herrigunean** (lekua zehaztu gabe dago oraindik) egingo da landaketa.  
Hitzordua, herriko plazan, goizeko 10etan.
- MARTXOAK 11: Aloñako Lagunak taldeko kideekin batera, zuhaitz landaketa **Aloña inguruetan**.  
Hitzordua, Unaimendin, goizeko 10etan.

### IRTEERAK (Datak zehaztu barik daude oraindik)

- ORKATZATEGIKO sai kolonia ezagutu eta Ecogyp proiektuan saien markaketa ezagutzeko irteera
- PIRINIOTAKO UGATZAK ikusi eta hauen egoera ezagutzeko asteburuko irteera.

Udalaren, Foru Aldundiaren eta HAZI fundazioaren laguntzarekin antolatu ditu jardunaldiak Natur Eskolak



  
**Amaia Igartua**  
**ARKITEKTURA ESTUDIOA**

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)  
-Diru laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-tarduerak libertzak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiIgartua@gmail.com • Oñati

  
**COINBROKER**  
ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuño Ama Kalea, 9 - 20560 Oñati

☎ 943 789 100 ☎ info@coinbroker.es  
🌐 www.gipuzkoa.coinbroker.es

# “Mozorrotzea eta disfrazatzea ez dira gauza bera”

Inauteri jaiak gainean ditugun honetan, **Maite Irizarekin** hitz egin dugu. Azken bi urteotan artikulu sorta interesgarria argitaratu du **dantzan.eus** atarian, Euskal Herriko txoko ezberdinetako aratuste jaietara buruz, eta Oñatiko Inauteriaren sortzailetako bat ere bada.

Duela bi urte hasi zinen Euskal Herriko txoko ezberdinetan ospatzen diren inauterietako dantzen inguruko artikuluak idazten ‘dantzan.eus’ atarian. Zer dela eta?

Nire nortasunaren parte da dantza; transmisioz etxean jaso dudana zerbait eta, neurri batean, bizitzeko modu bat da niretzat.

Txikitatik izan dut lotura euskal dantzekin, eta nagusitu ahala, dantzaren gaineko kontzientzia hartzen joan naiz, dantza egite hutsaz haratago asko duelako dantzak bere sakonean.

Beraz, nere kezka eta jakin-minen gaineko erantzunen bilatze lanetan *dantzan.eus*-eko kideekin harremanetan jarri, eta haiek animatuta hasi nitzen.

Zer dira zuretzat inauteriak. Nola definitzen dituzu?

Kristautasunari lotutako esanahiaz haratago doa. Ssakonagoa eta antzinagokoa da inauteriarren jatorria. Lurra esnatzeko egiten zen errituala da. Gure arbasoen ohitura eta sinismen



Oñatiko inauteriaren sortzailetako bat ere bada Maite

zaharren birsotze anomiko bat bezala definituko nuke. Ziklo bat amaitu eta berri bat hasten dela ospatzeko garaia da, gaitz eta txar guztiak akabatu eta txar dena on bihurtzeko garaia baita.



<https://dantzan.eus/kidea/Mirizar>  
helbidean irakur daitezke Maiteren artikuluak

Oñatz Dantza Taldeari esker, Euskal Herriko inauteri festa ezberdinak (Lantz, Lapurdiko Jauziak...) Oñatin bertan ospatu eta bizitzeko aukera izan genuen zenbait urtez, baina jai eta usadio horien esentzia jasotzeko bertara joan behar dela diozu zure artikuluetan.

Bai. Kontua da, tokian tokiko dantza tradizioak beraien testuingurutik ateratzen ditugunean sakoneko esanahia galdu egiten dutela, nire ustez. Ez da berdina, Lantzeko inauteria Lantzen bertan ikusi, haien ohiko markoan, edo handik kanpora.

Tokian tokiko dantzen ezaguerri nagusia zera da: talde autoktonoek bertakoentzat esanguratsuak diren egunetan egiten dituzten dantzak direla. Era berean tokian tokiko bereizgarriak dituzte, eta horrek ezbedintzen ditu gainerakoe-tatik.

Bestalde, tokian tokiko dantza bat bere testuingurutik atera eta beste toki batean leku-kotzen denean, uste dut arduraz

**NI moda**

**MODA BEREZIA**

Kale Barria, 12  
Tel. Faxes: 943 71 62 40

**CORTABARRIA**  
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haztendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behekoa • Tel.: 943 78 05 87 • email: [inkorta@teletel.es](mailto:inkorta@teletel.es)

**“Mozorrotzen garenean helburua da nortasuna ezkutatzea eta nitasuna ezabatzea; disfrazatzen garenean aldiz, miresmena bilatzen da, nitasunari eustea”**

eta erantzukizunez jokatu behar dela, oso kontuan hartuz nola burutzen duten jatorrizko tokian. Eta, hain zuzen ere, horrek sortzen zigun kezka eta arduragatik erabaki genuen inauteri propioak sortu behar genituela herrian.

**Noiz dira inauteriak. Zergatik aldatzen dira datak urtero?**

Elizaren egutegi liturgikoaren arabera ezartzen dira urtero. Egutegi horren berezitasuna da ilargiaren zikloak kontuan hartuta ezartzen dela.

Pazko-igandea udaberriko lehenengo ilargi betearen ondoko lehen igandea izan ohi da. Astebete lehenago Erramu-igandea izango da, eta Pazko-igandetik 50 egunera iritsiko da Mendekoste; hurrengo igandea Trinitate jaia izango da eta Trinitate ondoko osteguna Gorpuzti-eguna.

Inauteriak ere horrela ezartzen dira. Inauterietako Hausterre-eguna, asteazkena, eta Pazko-igandearen artean 40 eguneko Garizuma izaten denez, Pazko egunetik 40 egun (igandeak ez dira kontatzen) atzera egin eta inauterien bukaera, eta ondorioz inauterietako jai egun guztiak, ezar daitezke.

Lantz, Lesaka, Ituren... hainbat lekutako inauteriak bizi izan dituzu bertatik bertara. Zer nabarmenduko zenuke?

(Hurrengo orrira)



Ituren-Zubieta, Lesaka, Luzaide eta Lantzeko inauterietako irudiak. (Argazkiak: Maite Irizar)



## INAUTERIETAKO EGUTEGIA - 2018

<https://dantzan.eus/albisteak/inauteriak-egutegia-datak> helbidean kontsulta daiteke aurten Euskal Herrian ospatuko diren inauteri jaien egutegia



Bisitatu izan ditudan inauteri festak, landa eremukoak izan dira, eta sarri uste dugu, Euskal Herriko inauteriak eksklusiboak direla, baina ez da horrela. Europako tradizio zaharreko inauteriak gurekin alderatzen baditugu, laster ikusiko ditugu errepikatzen diren arketipoak, batean zein bestean ageri direnak.

Bestalde, inauteriak bertatik bertara bizitzeak aukera eman dit festa honetan parte hartzen duten pertsonaia eta elementuen esanahia edo sinbologia hobeto ulertu eta barneratzeko.

**Euskal Herriko inauteriak ezagutzen hasteko asmoz dagoenari zein aholku edo gomendio emango zenioke?**

Lehenik eta behin ulertu behar da mozorrotzea eta disfrazatzea ez direla gauza bera. Disfrazatzen garenean, esaterako indioz janzten bagara, jendearen miresmena bilatzen da; hau da, garrantzitsua da nortasunari, nitasunari eustea. Aldiz, mozorrotzen garenean, ez da edertasunik bilatzen, eta ez da pertsonaren nitasuna goraitpatzen. Mozorrotzen garenean helburua da nortasuna ezkutatzeko eta nitasuna ezabatzea.

Bestalde, inauterien esentzia hobeto ulertu ahal izateko, uste dut garrantzitsua dela aurrez informatzea sinbologiari buruz, oinarri bat izatea abiapuntu modura.

Bestetik, inportantea da kontuan hartzea, inauteriaren ezaugarri garrantzitsuak direla euforia, poza, parranda, legerik eza... Hori kontutan hartzen badugu, errazago ulertuko ditugu pertsonaiak, mozorroak eta haien rol aldaketak.

Azkenik inauteri gogoz dagoenari festa erritual batzuk aipatuko nizkiok: landa eremuetako inauteriak bisitatzeko (emankortasunarekin lotura estua dutenak), Neguko festetan ohikoak diren 'puska-biltzeak'

MAITE IRIZAR / Oñatz taldeko eta Oñatiko inauterietako lantaldeko kidea

## “Oñatiko inauteriaren sorkuntza prozesua ez da oraindik amaitu”

Seigarren urtea du aurten Oñatiko Inauteriak. Zuk ere parte hartu zenuen sorrera prozesuan. Zein balorazio egiten duzu orain artekoaz?

Bagoaz bidea egiten. Esango nuke sorkuntza prozesua ez dela amaitu eta bide luzea duela oraindik egiteko.

Urtez urte garatuz eta osatuz joan da eta hasieran markatutako hainbat helburu ere lortu ditugu, eta horrek poza ematen du. Musika eta dantza errepertorio propioak garatu ditugu, inauteriaren esanahia isladatu nahian aurrerapausuak eman dira, herriko talde edo eragile ezberdinekin elkarlanean



Otsailaren 10ean ospatuko da aurten Oñatiko inauteria

an ere aritu izan gara... Beraz, balorazioa positiboa da.

**Zein ezaugarri edo berezitasun ditu Oñatiko inauteriak?**

Oñatin aurrekari aipagarririk ez zegoela ikusita, bi ikuspegi landu genituen gure herriko inauteria sortzeko: hitzaren etimologia ta herri nortasuna.

Esanahi edo zentzu ezberdina eman izan zaie inauteriari historian zehar. Kristautasunarekin lotutakoa, adibidez (haragi-uztea), baina baita ere emankortasunarekin edo natura esnatzearekin ere. Horregatik azaltzen da, adibidez, hartza (bere haitzuloetako ezku-

**Euskal Herriko inauteriak eksklusiboak direla uste izan dugu, baina ez da horrela. Europako tradizio zaharreko inauteriekin alderatzen baditugu, laster ikusiko ditugu errepikatzen diren arketipoak**

**Inportantea da kontuan hartzea, inauteriaren ezaugarri garrantzitsuak direla euforia, poza, legerik eza... Horrela errazago ulertuko ditugu pertsonaiak, mozorroak eta haien rol aldaketak**

ezagutzea, Zuberoako Maskaradak ikustea... Urtarrilean hasi eta apirilera arte luzatzen da inaute garaia Euskal Herrian, eta bada zer ikusi eta zertaz gozatu.

**Inauteri jaietara mugatu barik, beste urte sasoi batzuetan dantzaren inguruan antolatzen diren jaiak ere aztertu dituzu (Tolosa, Otsagabia...).** Zeren bila joaten zara? Zeri errepertzen diozu?

Tokian tokiko ezaugarriak dituzten ospakizunak eta dantza-tradizioak ikustea gusatzen zait. Akaso, Oñatiko Korpus dantzak ere tokian tokiko dantza bezala sailkatzen direnez, esparru hori egiten zait deigarria.

Besteak beste, jatorrizko dantzakerari, musikari eta janzkerari erreparatu ohi diet bereziki, eta belaunaldien arteko transmisioaren gaia ere oso interesgarria iruditzen zait.



talekua utzi eta udaberriaren etorrera iragartzen duena) edota laiak (lurra goldatzeko erabiltzen zirenak).

Herri nortasunari dagokionez, Oñatin XIX. menderarte nagusi izan ziren Gebaratar kondea eta kondesa, eta beren borrarroak gorpuztu ditugu, eta hauekin batera, jendartea irudikatzen duten dantzariak, eta pertsonaia kuadrila zabala: ezkongaiak, gotzaina, monagi-

loa, mikeletea, gauzaina, alka-tea... Herrian hain errotuta egon zen txokolateroen ofizioari ere leku egin diogu.

Bestalde, inauteriek komunean dituzten arketipoak ere erabili ditugu, besetak beste, dantzarien jantzietan: oinarri txuri baten gainean kolore bizidun pontxoa, identitatea ezkutatzeko laguntzen duten zapia eta txapela, zarata eragingo duten zintzarriak...



**Aurten ba al da nobedaderik?** Ibilbidean egongo da berritasun nagusia. Olaiturrin hasita, Unibertsitatean, Portun, Txokolaiteixan, Errementarin eta Bogan egingo ditugu geldialdiak. Arratsaldean, Olanan emango diogu hasiera, eta handik Etxaluzera joango gara, gero Santa Marina plazara, eta Patrua Kaletik behera plazara, jaiari amaiera emateko.




# Summer camps

# Udalekuak

Udaleku irekiak

## Colonias

Colonias abiertas

**Zaintza zerbitzua:** 8:30-9:00

**Udalekuen ordutegia:** 9:00-13:00

**Iraupena:** 2-5 aste

**Data:** ekainaren 25etik uztailearen 27ra

**Jarduerak:** eskulan tailerrak, jokoak, kirolak, festak...




**ONATI**  
 Motxon, 7. Tel.- 943 71 60 00  
 onati@mondragonlingua.com

> Informazioa eskatu



# Eltziako taberna ustiatzeko deialdia egin du udalak

**OTSAILAREN 26RA ARTE AURKEZ DAITEZKE  
ESKAINTZAK UDAL BULEGOETAN**

Urtarrilaren 11an onartu zuen udalbatzak Eltziako taberna-kafetegiaren ustiapena kontratatzeko baldintza zerrenda, eta hilaren 26ra arteko epea ireki da eskaintzak aurkezteko.

Zerbitzuak izan beharko duen gutxieneko ordutegia hauxe da: astelehenetik ostiralera 16:00-20:30, eta larunbatetan 10:00-14:30 /16:00-20:30.

Taberna-kafetegia zabalik dagoen bitartean, Eltziako sarrera nagusiko atea eta topagunetik klaustrora doana ireki eta ixteaz arduratuko da errentaria, eta gunearen garbitasunaz ere arduratu beharko du.

Bestalde, baldintza zerrendan

garbi adierazten da, udalak ez duela inolako lotura laboralik eta administrazio berririk izango taberna-kafetegiko langileekin, eta taberna jarduerak sortzen dituen irabaziak eta galerak kontzesiodunaren gain izango direla.

### 50€ko ERRENTA

Errentari dagokionez, hileko 50 euroko gutxieneko kanona ezarri du udalak, eta prezio hori gorantz hobetu ahal izango dute lizitatzatzaileek kontuan hartuz eskaintza ekonomikoa izango dela irizpide nagusia (100 puntutik 51) zerbitzua esleitzera-koan. Proposamen teknikoak



**Bi urterako  
kontratua  
sinatuko du  
udalak, beste bi  
urtez luzatu  
ahal izago  
delarik**

(lantaldearen kualifikazioa, eskaintza gastronomikoa...) 44 puntu jaso ahal izango ditu, gehienez, eta hobekuntza proposamenek 5 puntu.

Euskara mailari dagokionez, zerbitzariak B2 gaitasun maila izan beharko dute, eta jakien manipulatuak titularen jabe izatea ere eskatuko da.

Udalaren webgunean ([oñati.eus/tramiteak/kontratazailearen/profila](http://oñati.eus/tramiteak/kontratazailearen/profila)) kontsulta daitezke baldintza tekniko eta administratibo guztiak. Interesatuak otsailaren 26a baino lehen aurkeztu behar dituzte eskaintzak udal erregistroan, bulego orduetan (9:00-14:00).

**OÑATI GARBIKETAK S.L.**

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatuak, dekapatuak eta argizari ematea.

Oñati, 17. beheko esk. / Tel: 702 733 713  
[argitagarbi@hotmail.com](mailto:argitagarbi@hotmail.com)

**ARGITAGARBI**

**Almaraz**  
Inmobiliari gestioa

Tel: 679411444  
[www.almaraz.info](http://www.almaraz.info)

**Carmelo Pérez de Almaraz**

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilini bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei lezaguzu".

## Udaberrirako jardun betean

Eltziako taberna-kafetegi zerbitzua udaberrirako martxan egotea nahi du udalak. Ordurako jardun betean egongo da ETEO zaharrean egokitu den kultura, arte eta sormen gunere berria.

Amaitu dira eraikina barrualdetik egokitzeko lanak, eta argazkietan ikusten den moduan, talde batzuk bertan dira lanean jada, eta beste batzuk azken prestaketa lanak egiten ari dira.

Eltziako sotoan musika taldeentzako lokalak (44 taldek dihardute bertan) eta biltegiak egokitu dira; zero solairuan Gorputz Eltziako taldeentzako lokalak (dantza, antzerkia, yoga...) eta Lagun Leku jubilatuen elkarteak, eta lehen solairuan Sormen Eltzia (argazki taldea, bertso eskola, pintura eta zizelkari taldeak...).

Proiektua borobiltzeko Eltzia eraikineko fatxada osoa hartuko duen mural erraldoi bat margotuko dute, barruan dagoen dinamikaren erakusle izango dena. Horrekin batera, ate irekien eguna antolatuko du udalak, herri osoak ikusi ahal izan dezan zer den Eltzia.



**Topalekua.** Taberna ondoko gune komuna (altzariak falta dira). Klaustrora irteera dauka.



**Yoga.** Lagun Leku elkartearen yoga taldearen lokala



**Oñatz** dantza taldearen lokaletako bat. Gorputz Eltziako lokal guztietan egurrezko zorua jarri da



**Familia gunea.** Txantxiki familia elkarteak haurrekin egoteko daukan txokoa.



**Zizelkariak.** Taila taldekoen tailerra.



**Pintura** taldearen gunea.



**Bertso Eskola** koen bilera eta entsegu gela.



**Musika eltzia.** Musika taldeentzako lokaletako bat.

**ETXIAN**  
Oñatiko inmobiliaria berria  
Donaizian etxea erosteko eta  
beste onurak inbentarioa eta laguntza

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi al duzu Oñatin?

Tel.: 943 71 61 60  
www.etxian.net

Etxian

carpintería  
**GARIBAI**  
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com  
www.garibai-aroztegia.com

# CHC COR Energia enpresak (Merkañoa) bono soziala eskainiko die bezeroei

**FAMILIA UGARIEK, PENTSION MINIMOA JASOTZEN DUTENEK, ETA DIRU SARRERA URRIAK DITUZTEN HERRITARREK ESKA DEZAKETE GIZARTE-BONOA**

Argindar fakturan gutxiago ordaintzeko, kolektibo jakin batzuei aplikatzen zaien deskontua da Gizarte-Bonoa. Iazko urrian bono sozial hori eskuratu ahal izateko baldintza berriak onartu zituen Madrilgo gobernuak, eta, beraz, hobari hori jaso nahi duten kontsumitzaileek eskaera egin behar dute energia enpresa ezberdinen bidez. Bonoa lehendik jasotzen duten herritarrek ere egin behar dute eskaera, eta hauen kasuan epe-muga bat jarri da: apirilak 10.

Eta puntu honetara iritsita, bada kontuan hartu beharreko beste berritasun bat. Izan ere, oraintsu arte CHC Energia enpresak (Oñatiko Merkañoa bertako kide da) ezin izan du bono soziala eskaini. Hori dela eta, argindarraren merkatua liberalizatu zenean, gizarte-bonoa jasotzeko aukera zuten herritar askok beste argindar enpresa handiago batzuekin sinatu zuten kontratua, hobaria jaso ahal izateko.

Orain, aldiz, CHC Energia (Merkañoa) enpresak berak ere eskaintzen du bono soziala,

» **BEZERO ZAURGARRIA (Vulnerable): %25eko HOBARIA**

	EGOERA BEREZIRIK GABE	EGOERA BEREZIAN
<b>1. GEHIENEZKO URTEKO ERRENTA</b> (familia unitate osoarena)		
- Seme-alabarik gabe	11.279 €	15.039 €
- Seme-alaba 1	15.039 €	18.799 €
- 2 seme-alaba	18.799 €	22.559 €
<b>2. FAMILIA UGARIA</b>		
<b>3. PENTSIODUNAK</b>	Pentsio minimoa	

**EGOERA BEREZIAK**

- %33ko edo gehiagoko elbarritasun maila.
- Genero indarkeriaren biktima izatea.
- Terrorismoaren biktima izatea.



» **BEZERO OSO ZAURGARRIA (Vulnerable severo): %40eko HOBARIA**

	EGOERA BEREZIRIK GABE	EGOERA BEREZIAN
<b>1. GEHIENEZKO URTEKO ERRENTA</b> (familia unitate osoarena)		
- Seme-alabarik gabe	5.640 €	7.520 €
- Seme-alaba 1	7.520 €	9.340 €
- 2 seme-alaba	9.340 €	11.279 €
<b>2. FAMILIA UGARIA</b>	15.039 €	
<b>3. PENTSIODUNAK</b>	7.520 €	

**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

Berezaio Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

**PAKITA**  
Altzariak

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

BUXALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTINGAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

**IRAZOLA**  
Okindegia

Ostiral asteburu  
eta jarraituz  
hasierako aroa,  
egunero jantzen dituzte

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



horretarako legez eratu behar izan duen CHC-COR enpresaren bidez. Beraz, bere garaian beste enpresa batera jo behar izan zuten herritarrek, herriko argindarra merkaturatzen duen CHC COR-Merkaofnara bueltatzeko aukera dute, gizarte-bonoa mantenduz.

### BALDINTZAK

Eta nork jaso dezake argindar fakturari aplikatzen zaion gizarte bonoa? Urriari onartu zen dekretuaren arabera, familia ugariak, gutxieneko pentsioa jasotzen duten herritarrek eta diru-sarrera urriak dituzten herritarrek dute bono-soziala jasotzeko eskubidea. (Ikusi xehetasunak ondoko orriko tauletan).

Hala, eskatzaileek dituzten errenten arabera, bi multzotan banatzen dira bezeroak: zaurgarriak (*vulnerables*) eta oso zaurgarriak (*vulnerable severos*). Lehen multzokoek %25eko hobaria jasotzen dute argindar fakturan eta oso zaurgarriak bezala sailkatutako bezeroek %40ko hobaria.

### ESKAERA EPEA

Bono soziala lehenengo aldiz eskatzeko ez dago epe-mugarik, baina lehendik bonoa jasotzen duten herritarrek apirilaren 10a baino lehen berri behar dute eskaera, bonoa galdu nahi ez badute. Horretarako, familia unitateko kide guztien NANen kopiak, Eilkarbizitza ziurtagiria, PFEZaren kopiak eta familia liburua aurkeztu behar dira, eskaera orriarekin batera.



Gainera, pentsio minimoa jasotzen duten herritarrek Gizarte Segurantzako ziurtagiria aurkeztu behar dute, eta familia ugariak dagokien agiri edo titulua.

Bestalde, dekretuan jasotako

Oñargi-Merkaofnaren  
bulegoan  
(Bidebarrieta 24)  
eska daitezke gizarte  
bonoari buruzko  
informazioa  
943780708

baldintza berezietakoren bat duten herritarrek (%33ko gutxieneko ezintasuna, edukitzea edota genero indarkeria nahiz terrorismoaren biktima izatea) baldintza hori ziurtatzen duen dokumentu ofiziala aurkeztu behar dute.

Bono sozialaren eskaera energia enpresa bakoitzaren webgunearen bidez egin daitezke, baina oñatiarron kasuan Merkaofnaren bulegora joan gaitzke (Bidebarrieta 24, behea / 943780708), inolako konpromisorik gabe, informazioa eskatu eta, hala nahi izanez gero, gizarte bonoaren eskaera bideratzeko.

## EKINTZAILEENTZAKO prestakuntza tailerrak

Enpresa edo negozio ideiarekin bat garatu nahi duten ekintzaileei zuzendutako tailerrak antolatu ditu Debagoieneko Mankomunitateak. Dohainik dira. Informazioa eta izen-ematea [www.debagoiena.eus](http://www.debagoiena.eus) / 943-793090 / [rgarcia@debagoiena.eus](mailto:rgarcia@debagoiena.eus). Plaza mugatuak.

### ● Otsailak 21, 22, 23 (9:30-13:30)

Negozio plana: ideietatik ekintzetara

### ● Otsailak 28 (9:30-13:30/15:00-17:00)

Ekonomi eta finantza modulua. Oinarrizko kontzeptuak. Nola kalkulatu prezioak. Kontrola eramateko tresnak.

### ● Martxoak 7 (9:30-13:30)

Negozioa abian jartzea. Forma juridikoak. Tramite administratibo, fiskal eta laboralak.

### ● Martxoak 14 (9:30-13:30 / 15:00-17:00)

Fiskalitateari buruzko oinarrizko ezagutza. Pertsona Fisikoen Errenta Zerga (PFEZ) eta BEZA

### ● Martxoak 21 (9:30-13:30)

Ikasi hobeto komunikatzen. PNL (Programazio Neurolinguistikoa). Komunikatzeko teknikak.



## Langabetu kualifikatuentzako programa

20-44 urte arteko gazte kualifikatuen (unibertsitate ikasketak edo goi mailako zikloa dutenak) laneratzearrastea helburu duen HAZILAN programa jarri du abian Mankomunitateak. Lehenengo, prestakuntza praktikoa eskainiko zaie gazteei eta gero praktikak egingo dituzte eskualdeko enpresetan. Otsailaren 2a da izena emateko azken eguna [www.debagoiena.eus](http://www.debagoiena.eus) atarian.

**GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak

**GAKO**  
Garbiketa eta konponketak

**653 70 45 47**  
Oñati

**PINTURAS  
URBIA  
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

## EMAKUMEENTZAKO JABETZE ESKOLA ABIAN DA



Osasun eta oreka emozionala lantzeko *Mindfulness* tailerreko irudia.

Urtarrilaren 8an jarri zen abian udaleko Berdintasun sailak antolatu duen Emakumeentzako Jabetze Eskola. Herriko emakumeen topagune eta gogoeta nahiz prestakuntzarako gune izan nahi duen foro honetan hainbat ekitaldi (tailerrak, hitzaldiak...) egingo dira ekaina bitartean. Lehenengo bi tailerrek (*Mindfulness* eta *Batukada*) oso erantzun ona izan dute. Hurrengo ikastaroak hauek dira: **'Nolakoa da gure parte hartze sozial eta politikoa?'**; **'Autodefentsa feminista'**; **'Brikolaje tailerra'**; **'Menopausia eta sexualitatea'**; **'Gure buruaren jabe'**. Informazioa eta izen-ematea, udaleko Berdintasun sailean (943780411).

### 55 urte badituzu eta gizartean aktibo izan nahi baduzu

# BIZIPOZ



Udalak babesten duen BiziPoz programaren 5. edizioa jarriko da martxan otsailaren 6an.

55 urtetik gora duten eta gizartean aktibo izan nahi duten herritarrei zuzendutako egitasmoa da BiziPoz. Bertan parte hartzen dutenek astean bi orduko tailer bat jasoko dute, eta proiektu sozial bat garatuko dute taldeka, coach edo tutore baten laguntzarekin.

#### EKONOMIA ETA TEKBOLOGIA BERRIAK

Aurtengo BiziPoz programan bi gai nagusi landuko dira: teknologia berriak (GPSa, erosketak online, banku elektronikoa...) eta ekonomia (pentsioak, herentziak, nazioarteko ekonomia...).

Tailerrak eta tuoretza saioak Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta 18) izango dira (17:00-19:00), honako egunetan: otsailak 7, 14, 21 eta 28, martxoak 7 eta 14, eta apirilak 11 eta 18. Informazioa eta izen-ematea: 638 516 973 (Eider) edo 646 263 050 (Beatriz).

### Olakuako irisgarritasuna eta hiri-espazioen hobekuntza plana enkargatu du udalak

Olakua auzunea irisgarritasun neurrietara egokitzeko plana egitea enkargatu dio udalak A2B arkitekto enpresa nafarrari 17.460 eurotan. A2Bk Olakuako San Andres kooperatibarekin elkarlanean egingo du plangintza, eta ondoren erabakiko du udalak noiz eta nola egin eraberritzeko lanak.

### Errekalde eskolako egitura hezetasunetik babesteko obra lizitaziora ateratu du udalak

Urgain-Errekalde eskolak lur azpiko erreka parez pare dauka eta horren ondorioz hezetasun arazoak dauzka aspalditik. Horiei konponbidea ematea da, hain zuzen, udalak lizitaziora ateratu dituen obren helburua. Lanek 323.714 euroko (+BEZ) aurrekontua dute. Udalak espero du %60rainoko finantziazioa lortzea Eusko Jaurlaritzatik.

### Sabai arkitekto enpresak idatziko du Oñatiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra

Pasaiako Sabai Arkitektoak enpresa izan da udalak egindako deialdira aurkeztu den bakarra. Kontratazio mahaiak ontzat eman ditu enpresaren txosten tekniko eta ekonomikoa, eta berari enkargatu dio udalak Oñatiko HAPOa idazteko lana 332.750 €tan (BEZ barne). Idazketa prozesuan zehar herritarren partehartzerako mekanismoak ere finkatuko dira.

### Kalitatearen Q ziurtagiria berri du Turismo Bulegoak Fiturren

Oñatiko Garapen eta Turismo Ajentziako eta Oinatur enpresako ordezkariak Fitur azokan izan dira, sektoreko profesionali Oñatiko turismo eskaintza azaltzen. Horrez gain, Q kalitate ziurtagiria berri-tu zuten turismo bulegoko arduradunek.



### Landa auzoetako traste zaharren bilketan aldaketak daude

Aurrerantzean auzoko mini-gune edo ekarpen gunera ateratu behar dira traste zaharrak ostegun iluntzetan (20:00-22:00), aurrez 943711938 zenbakira deituta. Bolumen handiko trasteak badira, baserritik hurbileko errepidean utzi ahal izango dira, eta udal zerbitzuko langileek jasoko dituzte, aurrez abisua emanda beti ere.

# Herribusa indartzen

## Zerbitzuaren erabilera arautuko duen ordenantza onartu du udalak



Mugikortasun jasangarria sustatzeko egitasmoaren baitan, Herribusa martxan jartzea izan da udal gobernuaren lehentasunetako bat agintaldi honetan, erdigunetik urrutien bizi diren herritarrei alternatiba jasangarri bat eskainiz, herriko zerbitzu eta ikastetxeetara hurbiltzeko.

Ildo horretan, herri barruko autobus zerbitzuaren aldeko apustua indartzera datozen hainbat erabaki eta neurri hartu ditu orain udalbatzak. Alde batetik, zerbitzuaren 8 urterako (2 urteko luzapenarekin) esleipen kontratua sinatuko du datozen egunetan (Arantzazuko garraio zerbitzua ere barne hartuko duena), eta bienbitartean zerbitzuaren erabilera arautuko duen ordenantza onartu du aho batez.

Bidaia-erien nahiz garraio enpresaren betebeharrak eta eskubideak zehaztu dira ordenantzaren (ondoko taulan laburbildu ditugu garrantzitsuenak). Berritasunen artean aipatu behar da, ordenantza indarrean sartzen denean, adingabeek (5-18 urte) ordaindu egin beharko dutela Herribusean ibiltzeagatik (orain arte 10 urtetik beherakoek doan bidaiatzen zuten). Neurri honen helburua da Lurraldebusen beste zerbitzu urbanoekin parekatzea, hurrengo fase batean Oñatiko zerbitzua Mugi txartelaren sistema barruan sartzeko asmoa baitu udalak.

Gogoratu, bestalde, datozen asteetan hiru markesina (Ugarkalde, Kasablanka eta Errekalde) eta zutoiak jarriko direla Herribusaren geltokiak seinalizatu eta informazioa (ordutegiak, lineak...) erakusteko.

### » ORDENANTZAKO PUNTU GARRANTZITSUENAK

#### IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

- Autobusak irisgarritasun sistemaz (arrapala mekanikoa, inklinazio sistema...) hornituta egongo dira, mugikortasun urria duten pertsonen sartu-irteerak bermatzeko.
- Gurpil-aulkidun pertsonentzako leku 1 eta mugikortasun urria dutenentzako 4 eserleku erreserbatuko dira. Bidaia-eritsuen edo gurpil-aulkidunen segurtasuna bermatzea eginkizun duten pertsona laguntzaileek ez dute ordainduko.

#### BIDAIA-RIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

- 5 urtetik beherako haurrek dohainik bidaiatuko dute, baina heldu batek lagunduta joan beharko dute (heldu bakoitzeko 4 haur, gehienez).
- Haurrak daramatzen kotxe edo aulki bakarra sartu ahal izango da bidaiako. Dena den, gurpil aulkian ibiltzen diren mugikortasun urriko pertsonak izango dute lehentasuna.
- Bizikleta eraman ahal izango da (pertsona bakoitzeko bat, eta bi bizikleta, gehienez), gehigarriak ordaindu gabe.
- Etxe abere txikiak eraman ahal izango dira (arriskutsuak ez badira), besoetan edo edukiontzi berezietan.
- Debekatuta dago ibilgailura patinak jantzita sartzea, eta autobusen barrualdea edo kanpoaldea hondatzea, idaztea, margotzea...
- Debekatuta dago irradi eta soinua erreproduzitzeko gailuak bolumen altuarekin erabiltzea.
- Debekatuta dago ibilgailuetan erretzea, eta ezingo dira jan izozkiak, edariak, pipak eta zizkintzen duten janariak.

#### GARRAIO ENPRESAREN BETEBEHARRAK

- Autobus gidariak euskaraz nahiz gaztelaniaz berba egin eta ulertzeko gai izen beharko dute. Bidaia-eriekiko tratua zuzena erakutsi eta irisgarritasuna bermatu beharko dute, beharrezkoa denean laguntza eskainiz. Araudia betearazteko arudura izango dute gidariak.

#### HERRIBUSEKO TARIFAK

##### HELDUAK:

- Aldian behingo txartela: 1€
- Bonobusa: 5€ (10 bidaia

##### ADINGABEAK (5-18 urte)

- Aldian behingo txartela: 0,40€
- Gazte-Bonobusa: 2€ (10 bidaia)



Unte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)



Jaiotze San Miguel Ugarte

**MAPFRE**  
ONATI



## Mexikar ikasle talde bat Oñatin da, Enpresagintza Fakultatearen eskutik

Mexikon, Mondragon Unibertsitateko LEINN gradua ikasten ari diren Queretaroko 16 ekintzaile iritsi ziren Oñatira joan den astean, eta bi hilabetez egongo dira gure artean. *Mondragon Team Academy* Enpresagintza fakultatean daukan laborategian arituko dira, ekintzailetasuna, berrikuntza eta lidergotza esperimendatzeko, beraien ikaste prozesuan aurrera pauso handia emateko asmoz. Oñatin dauden bitartean hainbat proiektu garatuko dituzte, bai inguruko enpresetan eta baita Oñatiko biztanleekin ere, Enpresagintza fakultateko LEINNeko ikasle-ekintzaileekin elkarlanean beti ere. Gure herriko kaleetan ikusiko ditugu datozen asteetan eta espero dezagun esperientzia bikaina izatea gure artean dauden bitartean. Argazkian daude guztiak, Enpresagintzako eta Oñatiko udaleko Sozioekonomia saileko ordezkariak.



## Josep Pamies Oñatin, Okitañoren eskutik

San Martingo baratza parkeko *Okitaño* taldeak Josep Pamiesen bi hitzaldi antolatu ditu. Martxoaren 3an izango dira, Santa Ana antzokian, goizeko 11:30etan eta arratsaldeko 19:00etan.

Josep Pamies DOLÇA REVOLUCIO mugimenduen sortzailea, sendabelarretan aditua, eta elikadura burujabetzaren bultzatzailea da. Katalunian eta Espainian zehar hitzaldi ugari ematen ditu gai hauen inguruan, baina gure bailaran lehenengo aldiz entzuteko aukera izango da.

## Finantza aholkularitza ikasketak akreditatuta

MUko Enpresagintza fakultateak eskaintzen dituen 'Finantza Aholkularitza Aditua' eta 'Finantza Informatzaile Aditua' tituluek Balore Merkatuaren Batorde Nazionalaren (CNMV) akreditazioa jaso dute, Europako zuzentarau berrira egokituta daudela ziurtatuz.

## Euskadiko ardoen dastaketa Oñatin

Gipuzkoako Ostalaritza Elkartea eta HAZI fundazioak antolatuta, Oñatiko udalaren laguntzarekin, Euskadiko Ardoen Dastaketa ekitaldia egingo da otsailaren 6an, Oñatiko Torre Zumeltzegi hotelean (10:00-12:30). Josema Azpeitia kazetari eta Basque Culinary Center-ko irakasleak gidatuko du ekitaldia. Izena emateko: 943316040 / [promociones@hosteleriagipuzkoa.com](mailto:promociones@hosteleriagipuzkoa.com)



## Xabier Ugarteren emazteak istripua izan du espetxetik bueltan

Susana Uribeberriak, Xabier Ugarte presoaren emazteak, istripua izan zuen urtarrilaren 27an, Topaseko (Salamanca) espetxetik bueltan zetorrela, ustez basurde bat izan zitekeen animalia baten aurka jota. Zorionez, Uribeberriak ez zuen zauririk izan, baina autoa bertan utzi eta taxi batean etorri behar izan zuen etxera. Horren harira, Etxerategi salatu du euskal presoaren ehunka senidek astebururo egin behar dituztela bidaiari luze eta arriskutsuak. Aurten 29 urte beteko dituen dispersio politikak 400dik gora istripu, 16 hildako eta milatik gora zauritu eragin ditu.

**EGUR-LAN**  
 AROZTEGIA  
 URBANIZACION S.L.

BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
 TEL./ FAXA: 943 78 14 59 | [linabaraia@gmail.com](mailto:linabaraia@gmail.com)  
[www.egur-lan.es](http://www.egur-lan.es)

**smk**  
 san miquel kooperatiba

943 781 217

Iturri berrak 3 - 20560 Oñati  
[www.sanmiquel.coop](http://www.sanmiquel.coop)

# Elkarrekin-Together film dokumentala Oñatira iritsiko da

**DUELA 500 URTE EUSKAL BALEAZALEEN ETA AMERIKAKO  
INDIGENEN ARTEAN EGON ZEN LANKIDETZA EREDUA  
ERAKUSTEN DU DOKUMENTALAK**

» Otsailaren 14an, asteazkena, kultur etxean, 19:30, ULMAK antolatuta. » Emanaldiaren ostean solasaldia egongo da.



## Iraganera espedizioa, etorkizunerantz begira? Harro egoteko historia eta istorioa.

Euskal arkeologoek Estatu Batuetako Maine uhartera egindako espedizioa kontatzen du "Together-Elkarrekin" film dokumentalak. Aurkikuntza arkeologikoak, orain dela 500 urte euskal balezaleen eta bertako natiboen artean emandako **lankidetz**a ereduaz azalatu du. Bi herrien arteko elkarbizitza. Kultura ezberdinen arteko beste bizikidetz bat posible dela erakutsi digu historiak.

## Beste mundu bat posible izan bazen, beste mundu bat posible izango al da?

Inoiz espero ez ziren aztarna eta istorioak aurkitu dira. Taldeko lana, kooperazioa, umiltasuna, elkartasuna, lana, irrika, konfiantza... elkarrekin. Balio hauek ezinbestekoak izan ziren Amerikako indigena eta euskal arrantzaleen artean emandako lankidetz sustatzeko. Berreskuratuko al ditugu?

Helburu honekin babestu dute filma hainbat instituzio (Eusko Jaurlaritzak eta EAEko diputazioak), eragile, enpresa kooperatibak (ULMA, Laboral Kutxa, AMPO, Danobat Group, Irizar, Fagor, Orkli...) eta komunikabide (ETB, DV, Gara, Berria eta Grupo Noticias) ezberdinek. Guztira, 25etik gora. Eus-



**Jatorrizko amerikarrentzat  
gurutzatutako bi gezik bi  
pertsone edo klanen arteko  
batasuna irudikatzen dute.  
Elkarbizitza eta  
adiskidetasunaren ikur dira**

kal komunitatearen nortasunean barneratu nahi izan dute, pausoz-pauso, proiektu handiak irekitzeko aukera izanik, eraldaketa soziala, norantza honetan, ardatz izanik.

## Elkarrekin - Together

*"Euskal esploradore talde bat txalupa baten heltzen da irla txiki batera, paisaia natural eta basati baten barrena. Urpeko ekipamendua, hondeaketa lanak eta argazkigintzako materiala darabate. Bertan, iparramerikarrak diren arkeologo eta urpekariekin elkartzen dira. Elkarrekin, bila, arrasto harrigarriak aurkituz. Lankidetzan".*

Jada herri, hiri eta herrialde ezberdinetako begiek irudi hauek ikusteko aukera izan dute, filma, Donostiako Zinemaldian estreinatu ondoren. Euskal Herriko hainbat txokotan estreinatu da dagoeneko. Baita Boisen, San Diegon, Renon, San Franciscon, Buenos Airesen eta Montevideon.

Datorren otsailaren 14an, ULMA-ren eskutik, Oñatiko Kultur Etxeko zinema aretoan izango da ikusgai film dokumentala, arratsaldeko 19:30tatik aurrera. Ondoren, proiektuaren sustatzaileen eskutik solasaldia izango da.

<p>caravanas  oñate</p>	<p>• GALBARAGINTZA - CALDERERIA Oñateko zehazketa, 25 • Tel: 943 71 63 60 <a href="http://www.caravanasoonate.com">www.caravanasoonate.com</a></p> <p>• BIZIKLETAK • ERREMOLKEAK • TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK Oñateko zehazketa, 25 • Tel: 943 78 05 65 Alzoko kale, 32 (erribusketa)</p>
--	--

# Kontzejupetik



**ARGITARATZAILEA:** Oñatiko Udala

**ZUZENDARIA:** Iñigo Arregi

**PUBLIZITATEA:** Aratz Losada

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Aratz Losada

**KOLABORATZAILEAK:** Jerardo Elortza eta Udal Euskaltegia

**INPRIMATEGIA:** Gertu

**Tirada:** 5.500 ale

**Lege gordailua:** SS-357/91

**Posta-e:** kontzejupetik@onati.eus

**Publizitatea:** publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## GUTUNAK

Azaleko argazkia: David Herranz

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

## Tere Bengoa Zubia eta Felix Arregi Zendoia

*Jerardo Elortza*

Denbora gutxian fan xaku Oñatin, Kale Zaharrian batez be, ixa egu-nero ikusten gittuan bi herritar eta auzotar: Tere Bengoa eta Felix Arregi. Hamai-ka barriketaldi eta komestaziño euki dit-tugu eurokin urtietan gai askoren inguruan: aspaldiko eskolia, gerrateko pasadizuak, auzoko jaixak, parrokixako korua eta Irrintzi otxotia, apostoluen kofradixia, ikastolia, batzokixa, emakume langilliak eta beste milla kontu. Luza-ruan bizi eta hurretik ezagutu zittuai-ñak informaziño-itturri aberatsak bihur-tu dira guretzat, herriko hainbat gora-behera eta pasadizoren barri zihetz eta seguruago eskuratu ahal izateko. Milla esker, bihotzez, bixoiri!

## ONDAREA ZAINDU

*Karme Aranguren*

Oñatin azken garai honetan ondare arkitektonikoari eragindako suntsipen latzaren inguruko kezka adierazi nahi nuke lerro eta argazki hauen bidez.

Hiritar askorekin, Donostiako *Ankora* eta *Ondare* elkarteko partaideekin komentatu ondoren, Oñatiko udaleko Hirigintza batzordea osatzen duten kideei zuzendu nahi diet idatzi hau, egoera salatzeko eta, honen inguruko hausnarketa sakona eragiteko asmoz.

1. Oñatiko plazan metalezko egitura hori oso itsusia gelditzen da, ez da egokia.

2. Kale Zaharreko portalak: Uste genuen "babestuta" zegoela zonalde hori, baina ikusten dugunez gabeziak daude. Interesgarria izango litzateke alderatzea lehen zeudenak eta orain ipini dituztenak.

Bide honetatik gaizki goazela iruditzen zaigu eta hau da adierazi nahi duguna.



## Ametsetan, hariekin lotu gabe

*Oihana Diaz, Ganbara Txiki*  
*Abesbatzaren izenean*

Duela pare bat urte "amets" bat izan nuen: Hariekin lotu gabe.ko haur bat nintzela, a zer poza!, baina esnatu eta... "hariak" han zeuden.

Nire amets hura egia bihurtu nahi nuen ordea. Aske izan nahi nuen! Laguntza bila hasi eta Ganbara Faktoria.rekin topo egin nuen eta beraien esku zegoen guz-tia egingo zutela esan zidaten.

Denak galdu xamar zeuden, hariekin lotuta, baina denbora pasa ahala, esfort-zuarekin, talde lanarekin, ilusioarekin, gogoz, apaltasunez, magiaz, musikaz... hari horiek askatzea lortu dute eta bizi-tza eman didate musikal honetan. Ber-tako bakoitza nire, Pinotxo.ren, hari bat

izan da, denak garrantzitsuak, beraiek gabe ez nintzateke mugituko eta ezin izango nuen nire "ametsa" egi bihurtu. Beraz eskerrik asko bihotz bihotzez.

Eskerrik asko lan talde guztiei: deko-ratu, jantzien arduradunei, makillaje eta pelukeria, sare sozialak, attrezzo, pro-dukzioa, harrera, laguntza koroa, erregi-dore, tekniko, zuzen-daritzza, aktoreak...

Ez duzue lortu nire "hariak" askatzea bakarrik, "hegoak" ere eman dizkida-zue, Euskal Herriko puntu des-berdine-tara eraman nauten "hegoak", Donostia, Lazkao, Bilbo, Iruña. "Hegaldi" zoragarria izan da, polita, ahaztezina, magikoa... errez ahaztuko ez dudana eta espero zuek ere ez ahaztea.

Eskerrik asko "hegaldi" hau posible egin duzuen denei, haur, guraso, familia, Kultura saila, Udal, kiroldegi, laguntzai-le, Eltzia, suhiltzaile, babesle, lagun, ikus-

le,...betirako nire bihotzean izango zarete.

Eta gogoratu: Batzuetan ametsak egi bihurtzea posible da.

*Bidaia amaitu eta abenturaz lepo gaude, batzuetan pentsatuaz "zenbat lan eta nahigabe..."*

*Baina esfortzuak eman digu hainbat ustekabe; lagun askoren eskuek, haur, heldu eta nerabe, bat egin dute lanean norbere arduraren jabe. Denok izan gara oso beharrezko eta klabe. Pinotxori zor genion zenbait magia edabe eta denoi esker dago Hariekin lotu gabe!*

## SALAKETA



## Kubiortak basoan botata, kontrolik gabe

Goikoa bezalako hainbat argazki bidali dizkigu herritar batek, Zañartun, San Julianera bidean ikusitakoa salatzen. Laz ere gertatu omen zen eta aurten ere berriro agertu dira kotxe eta quads-en kubiortak mendian botata, inolako kontrol gabe. Nor dabil kontrol bariko lan horiek egiten? galdetzen du. "Hau ezin da onartu. Zerbait egin beharra dago".

## 1.000 euroko saria, San Migel kooperatiban

Bezeroen lehialtasuna saritzeko Gipuzkoako Harakin eta Txerriki-Saltzaileen Elkarrekin zozkatutako 1.000 euroko saria San Migel Kooperatibak eman du.

Kooperatibako harategiko bezeroa den Conchita Inzari egokitu zaio saria; 300 euro kooperatiban bertan gastatzeko, eta 700 euro berak nahi duen tokian.

Conchitaren alaba Jaionek jaso du saria, kooperatibako Jose Ramon Sancho harakina, eta Olatz Arizti gerentearen eskutik. Zorionak!



## Presoen aldeko zozketan saritua

Herriko presoen alde Gabonetan antolatutako zozketan 2698 zenbakia (ordezkoa 3000) atera zen saritua. Mikel Tatiegik zuen oparia, gabon saski zoragarria, ondoko argazkian ikusten den moduan.



## IRITZIA / Jone Arrazola

## JENISJOPLIN

*Jenisjoplin* eleberririk asebate egin nau. Gustuko errutina izan da, ezen zorionsu egin naute gaueroko hitz dosiek. Topo egin dute, maizegi ez bezala, irakurtzeko gogoak eta liburu aproposak. Hala, Uxue Alberdiren azken eleberria ene aburuz irakur ezinbesteko egiten duten osagaiei erreparatuko diet datoen lerroetan.

80.hamarkadan kokatzen gaitu Nagore Vargas protagonistaren kontakizunak. Lehen pertsonatik bidaia-razten gaitu irakurleak denboran atzera, lehenaldiko "azal zaharrera": Nagoreren aita eta ama, bata espainiar

migrariaren seme "maketo" ezkertiarra eta bestea euskal baserri mundutik, tradizioetik, ihes egindako alaba. Bi testuinguru antagonikotan hezitako tandem-aren erdian jaioko da Nagore, Bilbo inguruko langile klaseko herri txiki batean.

Haurtzaroko hainbat gertakari erabakiorrak izango dira neskaren identitate eraikuntzan: izeba heroinomano bat du, aita ezkertiar porrokatua da eta amona militantea. Identitate gogorreko nerabe bizi eta errebeldea, aitzak "jenisjoplin" gisa bataiatzen du. Hala, 90.hamarkadan euskal jendartea biltzen zuen armadura berbera jantziko du Nagorek, gerora poliki-poliki erazuko duena.

Eta honatx tramaren katalizatzaile maisua: gazterik HIESa diag-



nostikatuko diote eta halabeharrez, gorputzean atzemandako aldaketek eragina izango dute bere identitatean zein jendartea ulertzeko moduan. Hiesaren albo-kalteak (erruduntasun sentimendua, estigmatizazioa edo sexurako muga) eta gatazka armatuaren zamaren tamainako gai potoloak modu dinamikoan korapilatzen ditu Alberdik, dialogo zein barne bakarriketa forman.

"Azal aldaketa" deritzo autoreak prozesu horri: ota-rrainak lez azal zaharra utzi eta berria hazteko prozesu natural bezain kulturalari. Heroikotasunetik zaurgarritasunerako igarobidearen errelatua da beraz

Nagore Vargasena, eta aldi berean izan zitekeen bere belaundiko euskal herritarrena. Izan ere, bere burua azalberritzen diharduen euskal jendarterearen erradiografia posible bat da Uxuek egindakoa.

Nagoreren bizi trama belaunaldi berri baten ahotsa da, Alberdiren. Bere hitzetan "euskal herrian ekarpen garrantzitsuak egin zituen belaunaldiaren neba-arreba txikiak izan gara. Eta zaharrenaren itzalpean, errelatu propiorik ez dugu izan". Laburrean, gure jendartean egun atzeman daitekeen biguntasuna, zaurgarritasuna, errelatoen gerraren ispilu da *Jenisjoplin*.



# Urte berria, egitasmo berriak

**2**017.urtea, ohi bezala, ekintzaz beteta bukatu genuen. Txaloka Udal Ludotekan ere Gabonetako ekintza bereziak izan genituen, pizza tailerra, esku-lanak, ... Gabonetako lehenengo astean, goizero haur pilotxo mugituz. Kubotik, bigarren astean, bi irteera egin genituen: 3, 4 eta 5.mailakoekin Gasteizeko Gabonetako parkera eta izotz parkera joa ginen. LH6. mailakoekin, berriz, Bilboko Gabonetako parkera. Ondoren, Gaztelekuan gaua pasatu genuen. Ez ahazteko moduko Gabonak bizi zituzten kubokoek!!

Topalekuan, aldiz, *eztanda* izeneko irratsaioa burutu zuten. Hau da, Oñati Irratian kolaboratzen duen Topalekuko gazte talde batek, Gaztelekuan saioa zuzendu eta grabatu zuten, baita jarraian irratian emititu ere. Bestalde, mini futbol txapelketa ere izan zuten beste egun baten, gustura eta buru belarri ibili ziren. Honez gain, herri guztiari zuzendutako hainbat ekintza gauzatu ditugu Gaztelekuan: Go!azen, Zutuberrak eta Potx eta Lotx antzerki saioak, ETS, Governors, Kimera, Glaukoma, ... Gaztelekua topera!!

Gabonetako ajearen ondoren, urte berriari ekin diogu, eta hemen ere ez da faltako zer eginik. Gure planifikazioaren barruan, 2018. urtea ilusioz hasi dugu jada, eta dagoeneko ekintza berri batzuk finkatuta dauzkagu: otsailaren 17an, 10:30-13:30 bitartean Ludoteka ibiltaria izango dugu Olakuako dorrean, Pizza tailerra egingo dugu bertan produktu ekologikoekin eta bertakoekin, txikienentzako esperimentazio gunea ere izango dugu. Gaztelekuan, berriz, otsailaren 19an bigarren urtez *Arazerixan* izeneko ginkana jarriko dugu martxan. 12-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago, eta herriko ondare, kontu, bitxikeri, txoko, berbak eta kultura modurik dibertigarrienean transmititzea daukagu helburutzat. Horretaz gain Kantari eta Inauteriak ere izango dira gurean. Hasi dezagun beraz urte berria ilusioz!



## - Arazerixan -

### OTSAILEAN...

**GAZTELEKUAN:** [3-4] Kantari saioko grabazioak. **MARTXOAK [2]** , Nogen eta Anita Parker taldeen kontzertua (22:30). Sarrera: 8€. **[19]** Arazerixan ginkanaren hasiera. **OLAKUAKO DORREAN:** **[17]** Ludoteka ibiltaria (10:30-13:30).



## Errepresioa Euskal Herrian

Euskal Herriaren azken hamarkadetako historia, oso gatazka-tsua izan da. 40. urteurrena beteko du aurten Espainiako Konstituzio inposatuak, eta harekin, erregimenaren sistema sustraituak. Oraindik ere, iraganeko hainbat eta hainbat errepresio kasu argitaratzen eta aztertzen ari diren honetan, kasu berriak agertzen zaizkigu, behin eta berriro. Aurreko idatzian salatu genuen Altsasuko gazteen aurkako akusazioa eta haien bahiketa adibidez. Argi dago errepresioa haragizkoa dela sistemaren izatean eta estatuaren eraginkortasunean.

Irten berri da Eusko Jaurlaritzaren eta EHuren artean, Pako Etxeberriak zuzenduta, torturen eta tratu txarren buruzko ikerketa. Bertan hainbat kasu jaso eta aztertu dituzte, 1960tik 2014ra bitartekoak. Ikerketa, baina, Euskal Herriaren hiru probintzietan oinarritzen da soilik, eta txostenak onartu bezala, datuak motz gelditzen dira errealtatearen aurrean, hainbat arrazoi tarteko. Bestelakoan, txostena garrantzitsua eta emankorra iruditzen zaigu gure herriko memoria historikoaren lanketa bat gauzatu dadin.

Ikerketan jasotako datuok, baina, tamalgarriak dira. Zenbakien atzean istorio gordinak existitzen dira, eta arduradunak, ondo ezagunak eta gertukoak egiten zaizkigu. Tortura kasu guztiak, Ertzaintzari, Polizia Nazionalari eta Guardia Zibilarari egozten zaizkie. Tortura sistema desberdinekin, baina erregimenaren defentsan, betiere.

1960tik 2014ra bitartean, ikerketaren arabera, 4.113 izan dira torturatuak EAEn, baina Euskal Herriarrek jasandako tortura kasuak 5.000 baino gehiago dira, motz geldituta. Euskal Memoriaren Fundazioak, adibidez, 5.657 aipatzen ditu. Berdin gertatzen da hildakoen eta atxilotutakoen zenbakiekin. 20.000 atxiloteta baino gehiago kontatu genitzake eta hildakoak 500 baino gehiago. Euskal Herrian jasandako errepresio bortitzaren errepresentazio garbienak dira kasuok, baina ezin ditugu ahaztu beste errepresio mota batzuk ere jasan izan direla. Kasu gehienetan, okupazio indarrak izan dira protagonista, gure herrian aurkitzen diren Guardia Zibilak, esaterako.

Indar polizial hauek basakeria ugari egin dituzte. Errepresioa izan dute arma, eta inpunitatea babes. Ezin ahaztu herriko Susana Arregiren heriotza, hainbat komunikabideren itxierak, eta hainbat eta hainbat atxilotze eta tortura kasu, gure herrikoideek jasandakoak. Estatuaren indar polizialak direnik ezin dugu ahaztu.



Oñatin bertan, Susanaren kasuaz gain, badira aipatu beharreko beste datu esanguratsu batzuk. Honako hauek dira datuok: 168 atxiloteta; 60 tortura kasu; eta 67 espetxeratze. Ez dira zenbaki hutsak guretzat.

Zenbaki hutsak ez diren bezala gerra zikinarekin lotutako kasuak, non indar polizialek soberan demostratutako inplikazio zuzena izan duten, klase politikoaren erabateko babesarekin, ezta gure bailaran heroinaren eraginez galdutako belaunaldiak eta eragindako mina, eta beste hainbat eta hainbat ardura, hanka sartzeko inolako beldurrik gabe egotz diezazkiekegunak.

Bestalde, ezin ahaztu dugu guardia zibilaren "zereginen" artean euskal burgesiaren armagintza enpresetako heriotza eragile diren armategietatik Bilboko porturainoko bidean euren zaintzapean egiten dituztela, argiegi ez dauden kantitate eta maiztasunez, erdi-erdi-erdi eta isilpean, kapitalaren interesei men egiten dieten gerlak elikatzen jarraitzeko, eta euskal burgesia aberasten jarraitzeko, besteren artean. Ezta indar armatu hau dela mugaren alde batetik bestera modu "irregularraren" pasatzen diren errefuxiatuen nondik norakoak kudeatzen dituen instituzioa ere, horrek pertsona horientzat daukan ondorioekin.

Bukatzeke, esan behar da Guardia Zibilaz gain, bestelako indar polizialek eragindako mina eta sufrimendua errepresio sistema berberaren parte moduan ulertzen ditugula Fan Hemendik mugimenduan, eta salatzen ditugula herri mugimendu garez gero. Ez dugu gure inguruan ez indar okupatzailek ezta zapal-tzailek nahi.





# Bala beltza

Goitiberen Euskal Liga irabazi du junior mailan Ioritz Arangurennek bere 'bala beltza' rekin

**H**amalau urte besterik ez ditu Ioritzek, baina maila bikaina erakutsi du Goitiberen Euskal Ligan. Hamahiru proba puntuagarri jokatu ondoren, 6. sailkatu da maila absolutoan, eta lehenengo 18 urte artekoen mailan.

## Pozik?

Bai, jakina!. Esperientzia handiko jende asko dago, eta ez nuen espero txapelketa irabaztea junior mailan, eta seigarren izatea sailkapen absolutoan.

## Hamahiru proba puntuagarri daude Euskal Ligan. Zer moduz joan da?

Egunetik egunera hobetzen. Lehenengo jeitsieretan ikasten ibili nintzen, eta urteak aurrera egin ahala, gero eta hobeto. Hain zuzen, txapelketako azken proban, Eskoriatzan, lortu nuen emaitzarik onena; 3. sailkatu nintzen, 90 lehiakideren artean, Euskadiko txapelkunarengandik 1,5 segundura. Oso polita izan zen podiumera igotzea, ni baino askoz beteranoagoen ondoan.



Gainera, Eskoriatzako jeitsiera zirkuitoan dagoen politena da niretako, jende asko egoten da ikusten, eta oso egun polita izan zen.

## Zenbat denbora daramazu goitiberetan?

2013an hasi ginen aita eta biok goitibera prestatzen eta proba batzuk egiten, eta azken bi urte hauetan ibili naiz kompetitzen federatuta.

## Lau modalitate daude goitiberen ligan. Zu Neumatikak izenekoan aritzen zara. Zein da bere berezitasuna?

Hiru edo lau gurpildun goitiberak sartzen dira modalitate honetan, eta azkarrenak dira, abiadura handiena hartzen dutenak.

Neurri jakin batzuk bete behar ditu goitiberak luzeera, zabalera, altura eta pisuan. Gureak hiru gurpil dauzka, scooter baten manillerrarekin gidatzen da eta

Ioritz urtean zehar irabazitako sariekin. Eskuineko argazki txikian Unai Biain kopilotoarekin batera podiumean. Beheko QRan daude ikusgai Ioritzaren jeitsieretako bideoak .





“ Ioritz Aranguren

## 70 eta 90 kilometro arteko abiadurak hartzen ditugu

bi freno independente ditu.

### Bi lagun joaten zarete?

Bi plazakoa da gotibera, eta ahal den guztietan bi lagun joaten gara. Unai Biainek laguntzen dit kopiloto lanean. Oso inportantea da kopilotoa, irteerako bul-tzadaz gain, errebueltatan kon-trapisua egiten duelako. Unai ezin duenean, bakarrik ibiltzen naiz, atzealdean 50 kiloko hare-zaku bat ipinita.

### Zenbateko abiada hartzen duzu?

Bergaran, adibidez, pendiz handia dago eta han 90km/0.-ko abiada hartu nuen. Normalean 70 eta 90 artean ibiltzen gara.

### Ez al da arriskutsua?

Beti dago arrisku puntu bat, bai-na segurtasun neurriak ere badi-tugu: irauketen aurkako barra, hiru puntudun segurtasun uhala, goitiberaren barrualdea biguna...

Euri egunetan arriskutsuagoa izaten da, baina gure 'bala beltza' (hala deitzen diogu) ondo dabil zoru bustian ere, eta ez dugu aparteko istripurik izan.

### Espainiako Kopako jeitsiera batean ere izan zara, ezta?

Bai. San Migel jaietan egokitu zenez, asteburu pasa joan ginen Oviedora. Naranco mendian behera jokatu zen eta oso polita izan zen; 9. sailkatu nintzen, eta 94km/0,-ko abiada hartu nuen.



## GIPUZKOAKO TXAPELDUNAK

Emakumezkoen kadete mailako eskubaloit taldeak Gipuzkoako txapelketa irabazi du eta Euskal Ligan ariko da hurrengo denboraldian. Gazte mailako taldea ere Euskal Ligarako igoera fasean aritu da, baina saririk gabe.

## MENDI IRTEERA / OTSAILAK 18

### Altzania Mendikatea

Aloña Mendik hile honetarako antolatu duen ibilaldia Altzaniako mendikatean barrena izango da. Otzaurten abiatu eta lehen zatia baso artean egin ostean, Aratz inguruko karstera atera eta Allaitz (1245 m.) tontorrera igoko dute. Jeitsieran Zirauntza hibaiaren iturburu ikusgarritik pasako dira. Luzeera, 16 km (700m.-ko desnibela) 5 orduetan egiteko modukoa, zailtasun barik. Irteera, goizeko 8:00etan Postetxe parean. Izena emateko epea: otsailak 15, Aloña tabernan, edo [alonia-mendi.mendi@gmail.com](mailto:alonia-mendi.mendi@gmail.com) helbidean. Prezioa: 10€. Federatuta egon behar da.



Zirauntza hibaiaren iturburu ikusteko aukera egongo da

## NIBOLOGIA IKASTAROA

### OTSAILAK 24-25

**Klase teorikoa:** otsailak 19, astelehena (18:00-21:00)

**Klase praktikoa:** otsailak 24-25, CANFRANC inguruan.

**Irakaslea:** Jon Apodaka Saratxo. Geologoa eta Nibologian aditua. ACNA elkarteko irakasle eta kolaboratzailea, baita Andorrako EDNAko elur-jausien irakaslea eta Frantziako ANENA elkarteko kidea.

**-Interesatuak** jarri harremanetan Aloña Mendiko Mendi sailarekin: [alonomendi.mendi@gmail.com](mailto:alonomendi.mendi@gmail.com). edo asteazkenetan, Aloña Mendiko egoitzan (19:30-20:50).



## Nahia Lasagabaster, Donostiako krosetako podiumean



Aloña Mendiko korrikalari gazteak maila oso onean ari dira. Horren lekuko, Nahia Lasagabasterrek Donostiako krosetan lortutako 3. postua, 16 urte azpikoen mailan. Bestalde, amaitu berri den Gipuzkoako Kros Ligan Eric Martin hirugarren sailkatu da 20 urte azpikoen mailan, Aitor Diaz de Monasterioguren bigarren gazte mailan, eta Nahia Lasagabaster laugarren.

## Xabi Lete birritan igo da podiumera



Xabi Lete mendi korrikalaria denboraldi hasiera bikaina egiten ari da. Garinen (Beasain) bigarren sailkatu zen eta Gernikako Etxera Trail lasterketan azkarrena izan zen, 15,5km.-ko ibilbidea 1:19:47an osatuz.

Bestalde, Idiazabalgo krosaren 38. ekitaldian Marisol Ramos bigarren sailkatu zen (lehenengo beteroenen mailan).

# Gazteak oholtza eske

## Hasi da Txinparta Gazte Sariketa. Urko Arregi-Gartxot Ramirez bikoak irabazi du lehenengo kanporaketa saioa



### Otsailaren 3an jokatu da bigarren kanporaketa, Pako tabernan

Joan den larunbatean jokatu zen Txinparta Gazte Sariketako lehenengo kanporaketa. Datorren larunbatean (otsailak 3) jokatu da bigarrena Pako tabernan, eta hilaren 16an izango da finala, gaztexean.

Herriko bertso eskolako gazteen ekimenez antolatu den txapelketa da. Urtean zehar bertso saio gutxi izaten dituzte eta, beraz, jendaurrean aritzeko aukera eskaintzea da sariketa honen helburua. Eta bide batez, aukera ederra da bertsolari gazteen maila eta garapena ikusteko eta hauen bertsoak freskoak gozatzeko.

#### BIKOTEKA

Bertsolari gazteak babestuago sentitze aldera, Txinparta sariketa bikoteka jokatzera erabaki dute. Danera 16 bertsolarik parte hartzen dute (horietatik 6 oñatiarrak) zortzi bikotetan banatuta. Bikoteko kide bakoitzak sei ariketa puntuagarrietatik hiru egiten ditu, eta amaieran bikoteak lortutako puntuazioak erabakitzen du sailkapena.

Lehenengo kanporaketa Arrano tabernan jokatu zen urtarrilaren 27an. Oso giro onean hasi zen saioa, bikoteka kantatu zituzten agur zirikatzaileekin. Ariketa puntuagarrietan

ere erritmo bizian aritu ziren, elkarri erantzunez eta ale politak utziz. Puntuari erantzuten eta bakarkako lanetan eman zuten mailarik onena.

Azkenean, Urko Arregi-Gartxot Ramirez bikotea nagusitu zen (354,05); bigarren Aitor Tatiegi-Bittor Altube (352,45), hirugarren Aritz Irigoien-Haizea Arana (341,1) eta laugarren Gontzal Belategi-Asier Ibaguren (321,7).

#### HURRENGOA PAKON

Bigarren kanporaketa saioa larunbatean (otsailak 3) jokatu da Pako tabernan (17:00). Beste lau bikote ariko dira, eta tartean bi oñatiar: Bittor Zubia-girre eta Xabi Agirre.

Finalean hiru bikote ariko dira; kanporaketa bakoitzeko irabazlea, eta puntuaziorik altuena lortzen duen bigarren sailkatua. Finala ere bikoteka jokatu da, baina saioa irabazten dutenek buruz-buruko jokatu dute, eta bakarrak jantzi dute txapela.

#### ESKOLARTEKO TXAPELKETA ABIAN

Bertsozale Elkartek eta Ikastolen Elkartek elkarrekin antolatzen duten Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren 38. ekitaldia ere hile honetan jarrriko da abian, eta Oñatiko Bertso Eskolako hiru kidek parte hartuko dute: Aitor Tatiegi, Bittor Zubiagirre eta Xabi Agirre.

Bost kanporaketa saio izango dira, bertso-afari formatuan denak, eta horietako bat Oñatin (Larrain Gain elkartean) izango da, otsailaren 23an. Aitor Tatiegi herritarra ariko da bertan. Bittor Zubiagirrek Zestoan kantatuko du (otsailak 16), eta Xabier Agirrek Anoetan (martxoak 16). Saio hauetarako sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) helbidean eskuratu daitezke.

**ARANBURU ALTZARIAK**  
 Kale Zaharra, 21  
 Kale Barria, 11  
 Lizaur A., 7  
 OÑATI  
 Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO GUZTIAK ALTZARIAK**  
**LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK**

**CANDELUKA**  
 THEFTESKATEAN NIKI

**Ramon Irizar, 2**  
 Tel. 943 08 81 84  
 Candeluka

## Hitzaldia

## 'Inauteria, gizakia naturaren kontra'

» OTSAILAK 8, OSTEGUNA, 18:00ETAN, EUSKALTEGIAN

Inauteri garaia aprobetxatuz, gai horrekin lotutako hitzaldi bat antolatu du euskaltegiak **Edu Zabala Garagartzaren** eskutik; berau 1958an, Eibarren jaiotako idazlea dugu, aspaldian Donostian bizi bada ere. Irakasle dihardu Irungo Txingudi Ikastolan. 2004an 'Inauterietan' izeneko ipuin bilduma gogoangarria kaleratu zuen eta 'Ezka' izeneko bere lehen eleberria. 2005ean, 'Onddoak, ondo?' titulupeko eleberri umoretsua. Aipatutako lan guztiak *Gero* argitaletxearekin. Eta 2015ean hitzaldiaren mamia osatuko duen "Inauteria, gizakia naturaren kontra" izeneko, autoedizioz.

Liburuan, inauteriaren sustrai zaharrez eta unibertsoa sortu aurreko kaosarekin dituen ustezko loturez berba egiten digu luze eta zabal. Haren iritziz, inauteria gizakiak naturaren kontra hasieratik daraman borrokaren antzeppen errituala da. Erritual horietan ageri diren animaliak (hartza, zaldia, otsoa ...) menderatuz naturaren indar basatia menderatzen duela adierazi gura du gizakiak. Halaxe, bada, gai honetaz interesatuta zaudeten herritar guztiok gonbidatuta zaudete saio interesgarri honetara.



## OTSAILA udal liburutegian

## SAIO LINBIKOA

Rafa Ruedarekin

Musika, literatura  
eta emozioak uztartzen  
dituen ekimena.

Rafa Rueda (Mungia, 1972) musikari bizkaitarra izango da udal liburutegiak antolatzen dituen saio linbikoetako bigarren gonbidatua.

Abenduan jarri zuen abian 'Saio linbikoak' izeneko ekimen berria liburutegiak, literatura, musika eta emozioak uztartzeko asmoz. Estreineko saio hartan Borja Estankona izan zen artista gonbidatua, eta oraingoan Rafa Rueda, *Broken Bihotz*, *Pi.L.T* eta *Lou Topet* bezalako taldeetan aritua. Formato akustikoan ariko da Rueda, eta hainbat kanta abestuko ditu gure oinarrizko emozioetan (poztasuna, tristezia, beldurra, nahigabea...) eragiteko asmoz. Aldi berean, musikariak bere ibilbidean zehar izan dituen erreferente literario eta musikalak partekatuko ditu entzuleekin.

OTSAILAK 16, OSTIRALA, UDAL LIBURUTEGIAN, 19:00



## OSTEGUN KONTALARIAK

Ipuin kontaketa saioa


Ixabel Agirresarobek 6-9 urte arteko gaztetxoei zuzendutako 'Joxe Moxe Kitararenan' kontakutakoak' ipuin kontaketa saioa eskainiko du. Gonbidapenak otsailaren 12tik aurrera banatuko dira.



## TERTULIXAN SAIOAK

Liburutegiko irakurle taldeak

Euskarazko taldea otsailaren 7an bilduko da, *Elkarrekin esnatzeko ordua* (Kirmen Uribe) liburuaz hitz egiteko, Yurre Ugartek dinamizatuta. Gaztelarazko taldearen hitzordua hilaren 28an izango da, *Rebelión en la granja* (George Orwell) liburuaren inguruan, Iván Repilak dinamizatuta.



**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umuen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

## AGENDA

# 02

## OTSAILA



### ODOL ATERALDIA

#### > OTSAILAK 9

Enpresagintza fakultatean, 17:00etatik 19:00etara.

### SANTA AGEDA KOPLAK

#### > OTSAILAK 4 / 18:30

**PAKE LEKUKO ABESBATZA**  
Pake Lekuko Aloña abesbatza kopla-kantari ibiliko da Santa Ageda egunean herrian zehar.

### PIANO JAIALDIA

#### > OTSAILAK 5 / 18:30

**DEBAGOIENAKO PIANO IKASLEEN KONTZERTUA**  
Bergara, Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta, Soraluze, Elgeta eta Oñatiko musika eskole-tako piano-ikasleek parte hartuko dute emanaldian. Santa Ana aretoa.

### OSTEGUN GIZENA

#### > OTSAILAK 8 / 18:30

**DANTZALDIA PAKE LEKUN**  
Otarateko goxo batekin eta dantza giroan ospatuko dituzte inauteriak. Mozorrotuta joateko deia egin dute.

## ANTZERKIA

### Ergela

#### > OTSAILAK 9 SANTA ANAN, 22:30

Txalo Produkzioak taldearen 'Ergelak' lana ikusteko aukera izango dugu otsailaren 9an. Umorea eta misterioa uztartzen dituen komedia da. Froga psikologiko batzuetara aurkeztu da protagonista (Joseba Apaolaza) diru pixka bat irabazteko asmoz. Bere arazo ekonomikoak konpontzeko diru erraza irabazteko joan da, baina tranpa eta iruzurra aurkituko ditu ordainetan. Psikologa misteriotsu batek (Sara Cozar) galdera sorta tranpatia egingo dio, gure tontolapikoa urduritasunak jota utzi arte. Halabeharrez, bere onenak eman beharko ditu zoritxarreko amaierarik gerta ez dadin. Sarrera: 10€ (<http://bibe.me>).

## KONTZERTUAK

#### > OTSAILAK 2 / 22:00

PELAX + JOSEBA B. LENOIR



Folk, blues eta rock doinuak Joseba B. Lenoir beratarrak eta Pelax donostiarraren eskutik. Sarrera, 5€ (langabetuek eta ikasleek 3€). Gaztetxean

#### > OTSAILAK 4 / 19:30

PETTI

Berako musikariak bere azken diskoko (Hotzikarak) abestiak joko ditu. **Pako tabernan.**

#### > OTSAILAK 9 / 22:00

JoxeRAMONES

Punk kutsua hartuko dute inauterietan Rocket to Antixena emanaldiarekin. Mozorrotuta joateko deia egin dute. Doan. Antixena gaztetxean

#### > OTSAILAK 16 / 22:00

SOFA kontzertua



Zarautz eta Zumaiako hiru-kote instrumentala da Sofa, math rock melodikoa jorrazten dute. **Pako tabernan.**

#### > OTSAILAK 23 / 22:00

MICE + LIBE

Beren lan berriak aurkeztuko dituzte MICE eta LIBE taldeek. Pop-rock musika egiten dute. Sarrera, 5€ (ikasle eta langabetuek 3€). Gaztetxean.

### + INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



## BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN  
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



> **OTSAILAK 25 / Iluntzean**  
**WILLIS DRUMMOND**  
 Hirukote formatuan hasi duen birak (Gure tokiak) geldialdia egingo du Oñatin. Sarrera, 5€.  
 .Antixena Gaztetxean.

> **MARTXOAK 2 / 22:30**  
**NOGEN + ANITA PARKER**  
 Folk, pop indie musika egiten duen Nogen donostiarra eta elektroswing musika egiten duen Anita Parker laukotearen kontzertua. Sarrera, 8€. Gaztelekuan

**HITZALDIAK**

> **OTSAILAK 10 / 11:00**  
**MASKULINITATE EREDU BERRIAK**  
 Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta, herritar guztiei irekia. Hitzlaria: Marcos Castro Sandua, Bartzelonako unibertsitateko irakaslea. Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko bideak jorratuko ditu. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da Santa Marinako eraikinean, alde zuzenetik izena emanda [ibarruso@elkarhezi.eus](mailto:ibarruso@elkarhezi.eus) helbidean . Kultur etxean



> **OTSAILAK 20 / 17:30**  
**HIRU ERLIJO HANDIAK**  
 Joxan larrañaga parrokoaren eskutik munduko hiru erlijio nagusiak hobeto ezagutzeko aukera egongo da. Pake Leku

**BISITA BEREZIA Kobazuloetako tximeletak eta beste bizidun batzuk**

> **OTSAILAK 25**  
**Arrikruz eta Sandailiko kobetan, 9:30**

Zerynthia elkarteko kideen gidaritzapean, kobazuloetako tximeletak eta beste bizidun batzuk ikusteko aukera egongo da. Estatu mailan tximeleten ikerketa eta babesa sustatzen duen elkarte da Zerynthia. Bisita dohainik da, eta plazak mugatuak dira. Izena emateko: 943082000 edo [arrikruz@onati.eus](mailto:arrikruz@onati.eus)

**DANTZAK**

> **OTSAILAK 11 / 18:30**  
**LUZAIDEN DANTZAK**  
 Inauterietako jai egitarauaren baitan Luzaideko dantzen kalejira, Oñatz taldearen eskutik, Aita Madina taldeko txistulariek eta musika eskolako akordeoi ikasleek lagunduta. Herriko kaleetan..



**LIBURUTEGIKO BERRIENAK**



**Aldizkaria**  
 "Harmaila"



**Liburua**  
 "Baigorri. Un vasco en..."



**Liburua**  
 "Bienvenidos al universo"



**Liburua**  
 "Atlas ilustrado de..."



**Liburua**  
 "Técnicas de patronaje..."



**Komikia**  
 "El dios dinero"

**MERKATU TXIKIA**

- > **KOTXEA PARTEKATU** Egunero goizeko 8etarako Gasteizera joaten den norbaiten bila nabil, elkarrekin joan eta gastuak partekatzeko. 647 126 359 (Luis)
- > **GARAJEJA** alokatzen da San Lorentzoko 4 zenbakian. Interesatuak deitu: 656 791 808
- > **KLASE PARTIKULARRAK** ematen ditut. Esperientziaduna eta magisteritza ikaslea naiz. Deitu: 688 867 480.

Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: [kontzejupetik@onati.eus](mailto:kontzejupetik@onati.eus)

**GUARDIAKO FARMAZIAK**



**ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16**  
 Otsailak 1, 9, 10, 11, 19, 20 eta 28. Martxoak 1.

**IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22**  
 Otsailak 2, 3, 4, 12, 13, 21 eta 22. Martxoak 2, 3 eta 4.

**GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58**  
 Otsailak 5, 6, 14, 15, 23, 24 eta 25. Martxoak 5 eta 6.

**JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28**  
 Otsailak 7, 8, 16, 17, 18, 26 eta 27. Martxoak 7 eta 8.

**PAILAZOAK**



> **OTSAILAK 13 / 17:00**  
**GARI, MONTXO ETA JOSELONTXO**  
 Inauterietako jai egitarauaren baitan 'Mozorrotzen' ikuskizuna eskainiko dute Zubikoa kiroldegian. Ikusle kopurua mugatua izango da. Sarrera, 2€. Zubikoa kiroldegian

**TXOKOLATADA**

> **OTSAILAK 13 / 18:00**  
 Oñatiko elizbarrutiko Misisio Taldeak antolatuta. Bildutako dirua Saint Paul ikastetxeko ikasleei jaten enateko erabiliko da. Foruen plazan.

**TXORIMALOAK eta DJa**

> **OTSAILAK 13 / 18:30**  
 Inauteri jaien barruan, txorimaloak eta, jarraian DJ-KI FEST. Foruen plazan. (Euria bada, Gaztelekuan)

# Kale Barria (III)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

## BESTE ERAIKIN AZPIMARRAGARRI BATZUK

J oan den hilabeteko zenbakian hasitako eraikuntza interesgarrien zerrendari jarraipena emanez, beste banaka batzuen berri zehatz samarrak emango ditugu gaurkoan, nahiz eta badakigun garrantzitsuak diren hainbat aipatzeko edota behar bezainbat nabarmendu gabe geratuko direla. Hona, bada, ondoren etxe horietako batzuen xehetasunak.

### Uraingo dorretxea

Erdi Aroaren amaiera aldera-edo jasotako dorre hau herrirako sarreretako batean aurkitzen zen antzina, zubi baten ondoan. Horregatik, **Zubiaurre** gisa ere ezagutzen da. Duela hamarkada batzuk, Ubao erreka desbideratu zutenean, **zubia**, eraitsi gabe, **estali egin zen**. Herriko zubirik zaharrena izan daiteke.

Dorretxeak nola edo hala iraun zuen XX. mendera arte. **Damian Lizaar** arkitektoak sakon eraberritu zuen **1954an**; jatorrizko hainbat ate eta leiho mantendu zituen behean eta lehen solairuko hormetan, etxe-bizitzak egokituz bigarren estaian. Ateak era eta tamaina desberdinetakoak dauzka, arku gotiko zorrozduak gehienak eta puntu-erdiko eder bat ere bai. Oso politak dira, besteren artean, fatxada nagusian ageri diren leiho bikoiztu lobulatuak.

Eraikin honetan bizi izan zen XVI. gizaldian **Borgoñako Felipe**, unibertsitateko obretara etorria eta Asentzioko ermitako San Andresen erretaula ederra (1555) moldatzen aritutako eskultorea. Etxe honetako alaba batekin zegoen ezkondua.



Zubiaurre, Iturritxo ondoan estalita geratu den zubia.



Urain dorretxeko ate eta leiho gotiko batzuk.

### Otadui etxea

Hasierako Kale Barria 1488ko suteak suntsitu ondoren, berregin zutenean, luzapena eman zitzaion goiko alderantz, Kalegoiena deituriko zatiarekin. Eskumatik errebal berri horren lehenengo etxea dugu Otadui deritzana; **XVI. mendean eraikia, harlanduz beheko partea eta adreiluz goiko pisuak**. Elementurik bereizgarrienak kantoira ematen duen **burdinazko balkoi dotorea eta zeramikazko armari bitxia** ditu.

*Oñatiko Historia eta Arte Bilduma* (1982) izeneko liburuan etxe hau "Casa del Deán de Avila" moduan dator. Baina, dirudienez, hori ez da zuzena, armariaren interpretazio okerretik baitator. Egia esan, **zera-mikazko piezak era nahasian jarrita zeuden eta DE ABILA / OTADUI JAUSORO / DEAN DE ABILA irakurri zen orduan inskripzioa**. Baina azken eraberritzea modutu denean, zatiak ordena egokiagoan ipini eta **OTADUI JAUSORO / ARCEDIANO DE ABILA** gisa ulertu da.

Arzedianoak edo artxidiakonoak katedraletako kargu inportante batzuk izan ohi ziren. Esan behar da Otaduitarrak Oñatiko familia garrantzitsu batekoak genituela. **Lorentzo Otadui Abendaño**, gure herriko historian pertsonaia handia, **Avilako apezpiku izatera iritsi zen XVII.aren lehen hamarkadan**. Otadui-Jausoro hori apezpikuaren iloba omen zen.



Otadui etxeko armaria zuzendu aurretik zegoen bezala.



Azkeneko obrak burutzerakoan, zoritxar galanta gertatu zen. Izkinako balkoiko jatorrizko **burdina-hesia** konpontzera eraman zen errementaldegira, eta **lapurrek ohostu** egin zuten bertatik. Orain dagoena kopia da.

### Etxaluze

Izena gelditu bada ere, parajea eta plazatxoa bataiatu zituen erai-kina duela hamarkada gutxi eraitsia izan zen, etxebizitza eta den-da berriak jasotzeko. Benetan penagarria etxe hori desagertu izana. **Kale Barriaren akaberan**, Kale Goienaren bukaeran nahia-go baduzue, **kokatzen zen jauretze hura** ez zen hain zaharra: 1846. urtean eraikiarazi zuen **Andres Lizaur** jaunak, **Mariano Jose Laskurain** arkitekto famatuaren proiektuarekin. Hiru fatxada zituen kanpoko aldera eta beste bat etxe osteko ortu-lorategi zabalera. Ordezkatu duenaren antzera, baina solairu gutxiagorekin. Aurreko etxeak zeukan **armarria mantendu dute** berrian ere, Zubillaga Azpiko baserrian dagoenaren kopia. Andres Lizaurreren jatorria sortetze horretatik ei zetorren.

**Andres Lizaur** gizon bitxia izan zen. Bazuen diru-iturririk, Ameriketara lortutakoak nonbait, hainbeste lur-sail erosi eta obra ordaintzeko. Izan ere, ez baitzuen bere mesedetan soilik gastatu bere kapitala. Oñatiko udalaren 1856ko akta batean adierazten denez, **herrizale eta filantropo gisa ere agertzen zaigu**: Etxaluze inguruko plazatxoa, Kale Goienatik San Martingo zubirainoko kaletxoa (egungo Martzelino Zelaia) eta beste zenbait tokitako lur-zoruak pabatu, egokitu eta txukundu zituen bere kontura.

Hurrengo belaunaldietan Etxaluzen bizi izandako pertsona asko ere nabarmendu ziren arrazoi ezberdinengatik: **Maria Irizar**, **Enrike Elortza**, **Frantzisko Apaolaza** edota **Bixi Ziaurriz**, esaterako. **Maria Irizarrek oso merke utzi zituen herrirako**, 1960tik aurrera Matingo eta Etxaluzeko eremuetan gauzatu diren poligonoetarako **lur-sailak**. Kale labur bat eskaini zitzaion, baina Apaolazaren alarguna izenarekin. Orain dela gutxi lortu da, hainbaten ekimenari eskerrak, emakume batek benetako izen-deiturekin Oñatin kale bat izatea. Bota aurretiko azken garaian agustino laterandarrek eta herriko ospitaleak ere erabili zuten Etxaluze urte batzuetan.

### Eta beste hainbat

Kale Barrian eta alboko kaleetan etxe-ordezkapen asko egon da, lartxo agian. Dena dela, orain arte aipatutakoez gain, geratzen dira beste banaka batzuk, kanpotik behintzat, osagai interesgarriak mantendu eta gorde dituztenak: adibidez, **Santosena**, **Atxarena**, **Gereta**, **Kirriñena**, **Orbea**, **Ibarrondo**, **Ritarena**, **Egañena**, **Juanitosa**, **Konfitteruena**, **Urrutxuneko atetzarra**, **Iturritxo**, **Honbrena**, **Agerrena**, eta abar. Hurrengoan saiatuko gara horietako batzuetan oraindik begi bistan ditugun armarriak, irudiak, atek, leihoak, miradoreak, behebarruak, modilloiak eta beste elementu ezohiko batzuk ikusarazten.



*Etxaluze zaharra bota baino urte batzuk lehenago.*

**ZURRUST**  
**TABERNA • JATETXEA**  
 Bidebarrieta 6  
 Tel: 943 71 62 96  
 20560 OÑATI

**FAGOR**  
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





# ITTEN BAT

(\*) Itten: arrastua, pistia

## EUSKARAZ EGOGI

### Fan ahal naiz / fan neike

Gaur egunian erderiaren eragiñez-edo, ahalaria adierazoteko **ahal izan** aditz modala baiño ezta entzuten, bazterrian geraketan dabiltz -KE morfemaz osotutako adizkixak. Hori dala eta, esan biharra dago euskeriak dakon ñabardura funtsezkoa galduaz edo ezkutauaz doiala, ahalaria adierazoteko bi modu horreik esangura desbardiña dakoi eta: **AHAL IZAN** dabilgunian aditzaren ekintza egiaztatuta edo konprobauta dago; **-KE** dakoin adizkixetan, berriz, ahaltasuna/ezintasuna eztago egiaztatuta. Beste modu batera esanda, AHAL IZANek ziurtasuna adierazoten dau, eta -KEdu adizkixak posibilitadía, erregua edo eskaeria, errespetuzko konbittia, abisua edo mehatxua, ustia, ... eta abar, eta horreittan guztietan ahal izate hori eztago probauta.

*Ahaleriaren* ebaleriaz fjiattteko, irakurri bi herrittar honein arteko alkarrizketia eta saiatu zatez markauta agiri diran aditz forma zuzena(k) aukeraketan:

### AUTOMOBILLA EZIN ETARA

Patxi: (1) **Mobiu zeike /mobiu ahal dozu** automobilla? Traban dago eta!

Joxe: Ez ba, orain (2) **eztakot mobitterik / ezin dot mobiu**, kiltza barik nago eta!

Patxi: Ederki! Orduan, (3) **fan zeike / fan ahal zara** etxeraiño eta kiltzia ekarri?

Joxe: Bai, fango nintzake, baiña oraintxe akordau naiz etxeko kiltza barik be banaguela; kiltza danak moltzo baten eukitten dittut eta.

Patxi: Oraintxe egin xuagu ederra! Orduan, (4) **diar egin zeike / diar egin ahal xatzu** etxeko baten bateri automobillaren kiltzia ekarteko?

Joxe: Hori be (5) **ezin xuat egin / ezin neike egin**, ba! Orain ezta iñor etxian, danak hortik zihar dira.

Patxi: Zer egin bihar dogu, ba, orduan?

Bialdu baten bateri whatsapp eta esan kiltzia aguro ekarteko.

Joxe: Bai whatsapp baneko!

Patxi: Hola habil orainddiok! Gaur egunian hori barik (6) **ezin leike munduan ibilli / eztago munduan ibiltterik**. Hartu neria eta diar egin, gehixago luzatu barik.

Joxe: Semiak euki bihar dau whatsappori, baiña nik eztago haren numerorik.

Patxi: Hau baltza, gero! Etxakuagu zer egiñik, orduan! Bixon artian obatu eta mobiu egin biharko dogu automobilla.

Joxe: Bai, (7) **ahal bageu! / ahal izan ezkeru**. Guk bixok bakarrik (8) **ezin geike hori mobiu /ezin dogu hori mobiu**.

Patxi: Probau barik (9) **ezin leike jakin /eztago jakitterik**. Probau degigun!

Joxe: Eeeuup! Eeeuup! Ezta ikararik be!

Patxi: Bixon artian etxaugu ikararik egitten, ez. Garbi dago laguntzia bihar dogula.

Joxe: Luisenian bi edo hiru lagun egongo dira guri lagun egitteko. Bañoiak, ia baten batzuk ekarten dittuten!

Patxi: Bai, lau lagun artian obatu ezkeru, samur mobiuko xuagu.

Joxe: Ia, ba, danok batera, heldu! Eeeuup! Eeeuup! Orainguan, bai, orainguan samur egin txaugu ikara.

Patxi: Astuna zuan madarikatua, baiña azkenian baztarrera (10) **eruan ahal izan xuagu / eruan geike** eta horri esker nik neure autua aparkalekutik (11) **etara neike / etara ahal izango dot**. Ordua zuan!

(Auto barrutik) Gero arte, Joxe, eta orain konpondu hadi heu Luiseneko horreikin!





## Araotzeko kinttuak Santa Ageda bezperan

**H**irurogei urte dako fotografia honek. Araotzen baserri gehixenetan lagun askoko familixak bizi ziran artian, eta gazterixa ugarixa eguen auzuan. Pentsau, 1958xan zortzi mutil gazte araoztar sartu ziran orduko kinttadan, hurrengo urtian soldaduzkara fan biharra eukaillako. Hori dala eta, **Santa Ageda eguneko kanta-eskia auzuan bertan antolaketia erabagi euen.** Soiñujoliaren aitzakixarik be ez eguen, kinttuetak batek ederki joten ebelako akordeoia: Txomeneko Jabier Guridik, hain zuzen be.

Araotzeko baillara zabaliam sakabanatuta dagozen auzunetako baserri guztietan jardun euen kantuan; **Bartolo Azkoitia** ezaguna izan zan bertso-kantari bakarlarixa eta **Jabier Guridi**, *Txome*, soiñujolia; kintto gaztiak, berriz, **koru errepikatzaillaren lanak** egin zittuain. Leku danetan emun ostean zerbait: **arrautzak, txorizuak, opillak edo dirua.** Sasue haretan auzuan dozenaka etxe izanik, **janari eta diru pillia eurenganatu euen Santa Ageda batzaillioik;** bazkari bat baiño gehixago moduketako adiña. Kaleko kinttuak, ostera, etziran oso gustora geratu: beste soiñujole bat topau bihar izan euen, eta pagautakoa, jakiña. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue argazkixan agerketan diran araoztarrak:

Goixenian, bera bakarrik, **Tomas Altube**, Araozurruti Goittikua.

Lehenengo illaran, goixan: **Felix Beitia**, Madina Beittikua; **Bixente Zubia**, Lopena; **Jabier Erostarbe**, Etxetxokua; **Joxe Antonio Azkoitia**, Madina Azpiko Txikikua; eta **Maximo Zumalde**, Madina Garaikua.

Bigarren illaran, erdixan: **Jeronimo Lezeta**, Txurdiñenekua; Auzoko mutillen maixua; **Bartolo Azkoitia**, Madina Azpiko Txikikua; **Patxi Zubia**, Gerneta Erdikua; **Joxe Luis Maiztegi**, Errastikua; **Paulo Azkoitia**, Madina Azpiko Txikikua; eta **Felix Arenaza**, Aitzgaiñeko Araoztakua.

Beheko illaran: **Pedro Uriarte**, Erreka Txikikua; **Benito Barrena** danborrarekin, Otalora Haundikua; **Joxe Olalde**, Zumaldekua; **Klaudio Goitia**, auzo-alkatia, Gerneta Handiko etxekua; **Jabier Guridi**, soiñujolia, Txomena; **Maximo Urkia**, Aizkorbe Goittikua; eta **Antonio Urkia**, Ugaztegi Erdiko etxekua.

Gorago esan dogun lez, **argazkixa 1958kua** da; eztakigu nor ataratakua dan, baiña bai nun: Ugaran auzuneko **Erreke Txiki** baserrixaren aurrian.

J. E.

Fotografia eta informaziño gehixena Jabier Guridiren bittartez aillegau xaku. Koldo Zumaldek be argibide batzuk emun dosku. Milla esker bixoiri!

**Oharra:** fan dan hilleko argazkixan ezkerretik hirugarren agiri dan neska gaztia ezta **Leonor Zulueta**, **Laura Enparantza Zulueta** baiño. Txilen jaixo arren, Oñatin hazi eta bizi izan zan Galartza-Zulueta familixan, 1936ko gerratian Ameriketara bueltau zan arte. Aitta Zañartuko Usako baserrikua eukan eta ama kaletarra. Zuzenketia Iñaki Ormazabal eta Jabier Galartzari zor dostegu. Eskerrik asko!

grupo  
amuebladora  
mondragonesa



## centro hogar MUEBLES

ZIGARROLA 1

TEL.: 943 71 10 12

ARRASATE



ZERKAOSTETA 3

TEL.: 943 71 10 11

ARRASATE



Sofa  
leku



Itxoi  
leku

ZIGARROLA 1

TEL.: 943 79 15 03

ARRASATE